


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Patxi Goenaga,
Hizkuntza
Politikako
sailburuorde? (3-5)



h Hilabetekaria • 2002ko urtarrila, 25. alea • [WWW.UZTARRIA.COM](http://www.uztarria.com)



DANTZA, 25 URTEKO SALTSA

Itsasi eta Sahatsa taldeek mende laurdena bete berri dute (22-27)

irratxo irratxo irratxo irratxo




irratxo

Jostailuak - Paperdenda
Tel. 15 05 30
Sanjuandei auzuen

JOLASTEN IKU IKASI JOLASTEN
JOLASTEN IKASI JOLASTEN... GOZATZEN

irratxo irratxo irratxo irratxo



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10



Formación de conductores • Gidarien prestakuntza

**DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK**



AZKOITIA

Ibai ondo, 16
Tel: 943 959934

AZPEITIA

Pablo VI, 20 behea
Tel: 943 159919

Azken eta
lehen sosak
euskarari
plana
(12)

Soldadutzako
oroitzapenak;
intsumisioak
arrastoa utzi
du (31-33)



Klik!
Abentura.
Izarraiztik
Everestera
(36-38)



Elkarrizketa.
Iñaki
Agirrezabala
(42)

uztarria

Baliteke azpeitiar bat izatea Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikako sailburuordea: Patxi
Goenaga; aurki baieztatu daiteke albisteak

PATXI GOENAGA, EUSKARA SAILBURUORDE?

Enekoitz Esnaola

Azken orduko ezusterik ezean, Patxi Goenaga euskaltzain azpeitiarra izango da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde berria. Hurrengo egunetan baieztatu daiteke albisteak. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) maiatzaren 13ko hauteskundeen ondoren, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Miren Azkarateri eman zion Kultura Sailaren ardura, eta Azkaratek bere konfiantzako lagunekin egin nahi du lan, eta horregatik egin dio Goenagari euskara sailburuorde kargua hartzeko eskaintza, konfiantzako duelako, Euskaltzaindian batera aritu direlako lanean —biak 1990eko hamarkadan izendatu zituzten euskaltzain oso—.

Azaroaren bukaera aldera hasi zen zabaltzen azpeitiarra izango dela sailburuorde berria. Uztarriak azken egun hauetan jakin duenez, Goenagari ematen diola halako erreparoa politikara pasatzeak, behin ere ez delako

politi-
ka n
murgildu,
eta "jauzi" ho-
rrek zer pentsa-
tua ematen dio eta
buruhautesterik ere ▶▶



► bai, baina oso litekeena da azkenean onartzea eskaintza.

Patxi Goenagak, beraz, Xabier Aizpuruaren ordezkari jardungo luke postu horretan, Aizpuru baina baita egun Hizkuntza Politikako sailburuordea, eta berak izan du azken urteetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gidatzeko ardura.

BIZIBERRITZEKO PLANA.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia —euskara normalizatzeko plana, azken batean— aurrera eramatea litzateke euskaltzain azpeitiarraren lehendabiziko lanetako. Hain zuzen, EAEko herrien artean estrainekoz Azpeitian garatuko da plan hori. Abenduaren 2an eman zitzaien Plan Nagusiari hasiera Azpeitian, eta Udalak orduan esan zuenez, herriko 657 gizarte eragilek sinatu dute euskararen alde. Udala orain beste eragile batzuen atxikimendua lortu nahian dabil, eta Eusko Jaurlaritzarekin plangintza finantzatzeko hitzarmena egingo du hurrengo asteetan. Ikusi egin behar hitzarmena sinatzen denarako Goenaga den Hizkuntza Politikako sailburuorde berria edo ez.

Azpeitiak ezezik, EAEko beste 33 herri ere eskatu dute Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berean garatzeko, baina, oraingoz, Azpeitikoaz gain ez dago berri handirik. Jakinikoa dena da herri bakoitzean aurrekontuaren %70 Jaurlaritzak jarriko duela. Dena den, Xabier Aizpuruak abenduaren 1ean *Euskaldunon Egunkaria*-n emandako elkarrizketan zioen udaletako euskara aurrekontuak ez direla “behar bestekoak”, eta “udalek konpromisoa erakutsi beharko lukete aurrekontuak gehitzeko”.

Eusko Jaurlaritzak ez du nahi herrietan euskara normalizatzeko proiektu hau “urtebetekoa izatea, baizik eta bizpahiru urtekoa”. Kontseilua ere ari da herrietako bere plangintzarekin —Azpeitia hautatu egin zuen bere garaian, baina Udalak gero Eusko Jaurlaritzakoari heldu zion— eta “oso emaitza onak” izan ditu orain arte.

Sortzen diren galderak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Patxi Goenagaren kargu berri posiblea dela eta, galdera batzuk sortzen dira. Honatx itaunak, eta erantzun batzuk ere bai.

● **ONA AL DA GOENAGA IZATEA SAILBURUORDE?** Patxi Goenagak hartzen badu Hizkuntza Politikako sailburuorde kargua, azpeitiarrontzat ona izango da, norberak bere herriko kontuak gertuago segitzen dituelako —Patxi Gasteizen bizi den arren— eta herritarrei karguduna gertuago egiten zaiolako.

● **ONA AL DA POLITIKAN IBILI EZ IZANA?** Patxi Goenaga orain arte ez da sekula politika munduan zuzenean sartuta egon. Unibertsitatean eta Euskaltzaindian ibili da batik bat, eta, beraz, ona da politikoei duten *birus* hori gabe egotea.

● **SINADURA = KONPROMISOA AL DA?** Azpeitiko Udalak herriko 657 gizarte eragileren sinadura lortu du. Baina sinadura hauek konpromiso direla esan nahi al dute? Gizarte eragileek, oraingoz, sinadura besterik ez dute bota. Kontseilua bere plana garatzen ari den herrietan, aldiz, sinatzaileek konpromiso garbia ere hartzen dute hasiera-hasieratik.

● **EUSKALGINTZA GABE EGIN AL DAITEKE ZERBAIT?** Azpeitiko Udalak orain arte ez du Baite Euskara Elkarte kontuan hartu, ez abenduaren 2ko kanpaina antolatzeke, ez plan nagusiaren aurredeinua egiteke. Baitek plangintzan zuzen-zuzenean parte hartzeko proposamena egin dio Udalari. Izan ere, zeinek pentsatzen du euskararen normalizazioa lortzeko euskalgintza gabe zerbaitek eraginkorra egin daitekeela?

● **AZPEITIARRAK PREST AL DAUDE?** Prest al gaude azpeitiarrok herrian behingoz euskararen alde gogor eta egunero lan egiteko? Orain arteko pasibitatea ikusita, zeinek du garbi?

bi irudi



BI EGUN HANDI.

Patxi Goenagak bere ibilbidean gutxienez bi egun handi izan ditu. Aurrena 1995eko urtarrilaren 27an, euskaltzain oso izendatu zutenean —egun hartako argazkia da goi-goikoa—. Beste egun handia joan den abenduaren 2an izan zuen, Azpeitiko Udalak omenaldia egin zionean, Patxi Altuna euskaltzainarekin batera —argazkian—.



BAITE, GOENAGAREKIN; AZKARATEREKIN ERE BAI.

Abenduan zen euskararen aldeko sinadura ekitaldia, eta han izan zen Baite Euskara Elkarte. Sinadura botatzeaz gain, Patxi Goenagarekin egon ziren Baiteko ordezkariak —argazkian—, eta elkartearen dossier bat eman zioten: sorrerako idatzia, kronologia, Udalari egin dion proposamena Plan Nagusia dela-eta... Baitek Miren Azkarate EAEko Kultura sailburuari ere eman zion dosierra. Giro onean egon ziren hitz egiten.

Euskaltzain oso 1995etik

Patxi Goenaga Mendizabal Azpeitian jaio zen, 1948an. Hamar urte zituela Xabierrera, jesuiten ikastetxera, joan zen ikastera. Han egin zuen batxilergoa seigarrena arte. Hamazazpi urterekin Lagundian sartu zen. Pare bat urte egin zituen nobiziaduan Loiolan, gero urtebete Salamancan eta azkenean Bilbon. Hogeita zortzi urte zituela, ordea, uztea erabaki zuen.

Filosofia eta Letretan (Filologia Erromaniakoa espezialitatean) lortu zuen lizentziatura Deustuko Unibertsitatean 1974an, eta Euskal Filologian doktore gradua Euskal Herriko Unibertsitatean 1984an, Koldo Mitxelena zuzendu *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa* tesiarekin.

EUTGn aritu zen irakasle eta zuzendari, 1976tik 1980 arte, eta 1980an Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia, Geografia


eta Historia Fakultatean hasi zen lanean —Koldo Mitxelena deituta, hain zuzen ere—. Fakultate honetako dekanordea izan zen 1986an eta ondoren dekanatu izendatu zuten, 1986tik 1990 arte. Katedra irabazi zuen 1991n. Arabako kanpuseko errektoreorde ere izan da (1991-1995) eta EHUko Euskal Filologia sailburu, 1999an.

• **EUSKALTZAINDIAN.** Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1979ko abenduaren 20an eta euskaltzain oso 1995ko urtarrilaren 27an, Antonio Maria Labaien zenaren orde. Adolfo Arejitarekin eta Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-rekin lehiatu zen Goenaga, Txillardegiaren hautagaitza azken unean erretiratu egin bazuten ere. Goenagaren hautagaitza Patxi Altunak, Miren Azkaratek, Juan

Mari Lekuonak eta Beñat Oihartzabalek proposatu zuten, eta hamalau boto jaso zituen, eta bost Arejitak; boz haiez gain, hiru boto zuri egon ziren. Sarrera hitzaldia Gasteizen egin zuen, 1995ko azaroaren 24an, *Euskararen batasunaz eta duintasunaz* gaiari buruz. Euskaltzaindiko idazkaria da 1996az geroztik. Gramatika batzordeko kide da hasieratik beretik.

• **SARIAK ETA DIRU LAGUNTZAK.**

- Ikertzaileei laguntzeko Eusko Jaurlaritzak 1981-82 ikasturtean emandako beka. Hurrengo urtean ere berritua.
- 1985ean Arabako Aurrezki Kutxaren diru laguntza *Euskal sintaxia: gobernu eta uztardura* izeneko talde proiekturako.
- 1979an Bilboko *Galeria del Libro* dendak emandako *Zilarrezko Lauburua, Gramatika Bideetan* liburuaren salmentagatik.
- Bilboko Aurrezki Kutxa Municipalak *Resurrección María Azkue* saria eman zion, ikerketa tesiagatik (1984).



**ESKERRIK
ASKO
AZPEITIKO
HERRIARI**

euskararen alde
emandako
erantzunagatik

ELUSKARA
gu geu gara bidea



AZPEITIKO UDALA



Azpeitiko Euskara Patronatua

amuko zubitik Mikel Arregi



ESKAILERA MEKANIKOA ETA EUSKARA AZPEITIAN

Iruñeko lagun batek teoria bat dauka: *eskailera mekanikoaren teoria*. Teoria horren arabera, pertsona batek, ibili ahal izateko, hankak bata bestearen atzetik mugitu beharra dauka. Baina, pertsona horrek Bilbora joan eta Metroko eskailera mekanikoak hartzen baditu, ezer egin gabe gora eta gora egiten du, eta gainontzekoei goitik behera begiratzen die. Iruñeko lagun horrek horixe bera azpimarratzen du: pertsona hori ezer egin gabe igo dela. Eta aipatzen du, baita ere, funtzionarioek gauza bera egiten dutela: ezer egin gabe goraka joaten direla, eta gainontzekoei goitik behera begiratu gero.

Orain dela gutxi aurkeztu dute Euskara Biziberritzeko plana Azpeitian. Eta plan hori aurkeztu dutenek diotenez, gure herria Euskal Herrian eredu bilakatuko da. Nire ustez, baina, eredu izatetik nahiko urrun gaude. Azpeitian, euskararen normalizaziorako lanean, *eskailera mekanikoaren teoria* gertatzeko

arriskua ikusten dut: alegia, protagonismoa herritarrek hartu beharrean, hainbeste urtetan eskaileraren goian ia ezer egin gabe egon direnek hartzea. Izan ere, goian dauden horiek, planaren gestioa egingo dutenek, herritarrei protagonista izateko aukerarik ez diete utzi (aholku emaile izatea ez da, nire ustez, protagonista izateko modua). Eta nire uste apalean, herri honetan euskararen normalizazioan pausorik emango bada, herritarren partehartzearekin emango da; parte hartu nahi duten guztien protagonismoarekin emango da. Horregatik, euskararen alde lanean dabilzan talde guztiek hitza eta erabakia izan behar dute normalizazio plan horretan. Eta horregatik, Udalaren maila berean egon behar dute euskararen alde lanean dabilzan talde horiek.

Igo ditzagun euskararen eskailerak oinez, banaka-banaka, eta inori goitik behera begiratu gabe.

azketako ude Kepa Susperregi



ETXERIK GABEKOEN EGUNA DELA ETA

Duela hilabete ospatu zen etxerik gabekoen eguna. Aurtengo honetan *Noiz arte honela?* zuen goiburu edo lema, eta etxerik gabekoentzat estatu egitasmo baten aldeko deia, eskea luzatzen zuen.

Caritasek igorri zuen dokumentazioan aipatzen zenez, 30 mila lagun daude Espainiako Estatu osoan etxerik gabe muturreko bazterketa egoeran; hau da, ostatu zerbitzuak erabiltzera behartuta daudenak.

Egia esan, ikuspuntu kuantitatibotik begiratu txikia da kopuru hau (mila biztanletik bat baino gutxiago). Baina, hala izanik ere, ba omen dira gogoan hartzeko moduko datu batzuk ere: etxerik gabeko egoera horretan gero eta gazte gehiago agertzen omen da, bai eta emakume eta familia gehiago ere.

Eskaintzen zaizkien zerbitzu asko lehen mailako beharrak betetzeko dira: jangela, ostatua eta higiene zerbitzuak; hauek zerbi-

tzu guztien % 80a baino gehiago osatzen dute.

Zerbitzu horiek egotea positiboa izanik ere, bestelako neurri batzuk ere beharrezkoak dira. Gizarteratze lanak behar adina laguntza eman behar dio baztertutako pertsonari "putzutik ateratzeko", nahiz eta interesatuak bakarrik egin dezakeen bide hori.

Beste hainbat gauza ere aipatzen dira aurretik aipaturiko dokumentazioan, baina tira...

Gure inguruan ere behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu ibiltariak, motxila edo kirol poltsa hartu eta herri batetik besterako bidaia eginez ate joka agertu zaizkigunean. Azken hilabeteetan, ordea, inguru honetan bertan finkatzen ari diren lagunak ere badira: eskean txanpon batzuk bildu eta herri inguruko santutxoren batean lo eginez... Zer-nola jokatu? Zer irtenbide eskaini?

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

GEU GARA HISTORIAREN BORRERO

Geu gara geure historia-
ren borreroak. Gehienok beti ezagutu izan dugu Riojanonekoren bat, baina orain ez dugu batere. Lehen hiru Riojano zeuden—behekoa, orain Beti Alai dagoen tokian zegoena eta Enparan kaleko bodega—, azken urteetan behekoak zen geratzen zen bakarra, baina orain taberna hari Bost jarri diote izena. Riojano izena erreferentzia bat zen lehen. Orain galdu egin da erreferentzia historiko hura. Izana ere bai.

Ezizenekin ere geu gara geure historiaren hiltzaileak, batik bat gazteria. Jada ez daude *Prakahaunditarak*, *Sarralletarak*, *Etxebeltzekoak*... Hots, orain familiarik ezizenez ezagutzen den gutxi dagoela.

Esana du Imanol Eliasek: «Sekula ez zaigu interesatu herriko historia».


bota bertsue

Ainhoa Larrañaga

UZTARRIA

Uztarriak egina da alferrikako bide eman ezean gero aldirako. Proiektu berri bat du gure herrirako: egitasmo berria urte berrirako.

Lehenengo adarra zure eskutan dagon aldizkari hauxe da, gaurdaino bezain on. Bigarren, liburuxka berritan bi gizon... Eta hirugarrena, uztarria.com



LAXARO AZKUNE. Bikain Laxaro Azkune, Joxe Luis Gorrotxategi herrikidearekin, bertso finaleko egunean Loiola Herri Irratian: komentario ugari eta onak, entzulearentzako argigarriguztiak ere.



JOXE MARI IRIONDO. Zer egin zuen bertso finaleko goiz osoan Joxe Mari Iriondo herrikideak ETB1eko esatari gisa? Ez komentariorik, lekuz kanpoko aipamenak... Gaizki aritu zen. Arratsaldean ere eskas.



HITZALDIAK. Arrazoi du Lagun Onak M.B.k hitzaldien polemikaren inguruan, bere plangintza Udalean aurkeztua zuelako. Udalak dio halakoak Kirol Batzordera zuzentzeko. Koordinazio eza... Udalarena.

gutunak

Zine-Klubekoei zorionak eta eskerrak

Gaurkoan Azpeitiko Zine Klub taldekoei goratarre egin nahi diet urte osoan zehar egiten duten lanagatik.

Izan ere, lan polita egiten dutela deritzot. Kurioso eta txalotzekoa da, talde txikiak sortu eta laisterrera desagerterazera ia-ia ohitu garen honetan, horrenbeste urtetan (25. urtetan hain zuzen) ideia baten garapean horrelako tinkotasun eta zintotasunez batzuk lanean sumatzea. Arlo bat hartu -zinearena kasu honetan- eta arlo hortan lan egitea, lan duina, ona.

Eta Gabonetako haur eta helduentzako zine zikloa da horren adibide garbia. Zenbat urte ote dira lehenengo aldiz opor edo erdi-opor diren egun hauetan Soreasura sartu nintzenetik? Eta zenbat filma bota ote dituzte harrezkeroztik? Hauek aukeratu, landu, sarre-rako testua prestatu, orriak

atera, filmea bera lortu, eman, sarreran egon... guk joan eta ikusteko.

Ez naiz ni oso zine zalea. Baina tartean behin, bizitza bestelako prisma baten argipean ikustea gustatzen zait. Eta garbi dago, ohiko zine emanaldiek ez digutela bestelako prismarik eskaintzen. Eta zuek behintzat, saiatzen zaretela horretan.

Beno, zorionak eta eskerrak asko. Ea luzaro jarraitzeko moduan zareten. Esateko gogoan nuen.

Josu Agirretxe

Babes Ofizialeko Etxebizitzak direla eta

Azken egunotan, Udalak jakitera eman duenez, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruko proiekturen bat omen darabil esku artean.

Jakingo duzuen bezala, Udalaren keinu hau ez da kasuali-

tate hutsez etorri. Herrian sortutako jakinmin eta esamesak izan dira Udala erantzun azkar bat ematera behartu dutenak.

Egia esan, txundituta gelditu gara Udalaren erantzun bizkorrekin. Benetan zorionak eman nahi dizkiegu bertara dei eginez eta abar, Udala presionatu duten herritarrei. Herriaren kezka, esames eta presioa izan bait dira Udala mugituarazi dutenak.

Baina hau hasiera besterik ez da. Udalaren keinu hau asmo hutsean gelditu ez dadin, gu guztioi dagokigu honi jarraipena ematea.

Kale Gorrianeke bere partetik proiektu honi jarraipen zehatz bat emateko konpromezua hartzen du. Proiektu hau ahalik eta epe motzenera eta baldintza hoberenetan gauza dadin, gure esku dagoen guztia egingo dugu. Horretarako zuek guztion laguntza behar beharrezkoa zaigularik.

Garbi dago, Udalak orain arte erakutsi bezala bere kasa ezer gutxi egin duela, beraz, herriaren presioa ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, orain-

dik sinatzeko aukerarik izan ez baduzu; sinatu ezazu!

Kale Gorrian

Aupa Beixama!

Gustora egoteko motiboak dituk, eta seguru, halaxe hagoela, gustora. Izan ere, egundokoa egin duk; apenas inork sinetsiko zian, txapelketa hasi aurretik, horrenbestera iritsiko hintzenik. Kontua ere galdu diat zenbat partida jokatu dituan. Asko. Gogoan diadana, zera duk: azken partidaren ere, Eugi txapelkun handiaren aurka nola jokatu huen, eta nolako lanak eman hizkioan.

Heuk eduki duk konfiantza eure buruarekin, eta heuk egin duk pelotan. Heuk jarri duk jarri beharreko guztia. Heu jardun haiz entrenatzen, gainerakoan erdi-ahaztuta hintugunean. Eta orain, jaso hitzak heuk, egindako lanaren fruituak. Bejondiala!

Unai Etxeberria

akullue



Leire Ostolaza

EUSKARA
ERABILTZEA
DA BIDEA

Gu geu gara bidea le-mapean, Euskara Biziberritzeko Planaren aurkezpen ofiziala izan zen abenduaren 2an plazan.

Orditik hona hilabete pasatu da, eta guztiok ere lehengo moduan jarraitzen dugu. Oraindik ere joango gara euskaraz ez dakien dendari, mediku, epaile nahiz bulegoko leihatilaren batera eta eskatu beharrekoa euskaraz eskatuko dugu. Eta bestaldekoak "es que no entiendo" esan orduko eta haren momentuko ondorearen errudun sentituz "pues...eh... querria..." esanez hasiko gara gazteleraz, eta berriro garbi utziko diegu ez dela guttiz beharrezkoa euskara.

Egia da, gainera, ezin dugula kaleko *bihankakorik* derrigortu euskara ikastera, baina kontsumitzaile garenean behintzat, saiatu behar genuke euskara gure eskubidea dela gogorazten eta leihatilen atzean daudenen betebeharra dela, eskaintzen duten zerbitzua bezeroak hautaturiko hizkuntzan eskaintzea.

Iruditzen zait euskal hiztunok, geu garen bide horretan, pauso ugari eman beharko dugula oraindik helmuga egoki batera iritsiko bagara. Sinadurak, sinadura hutsean geldituko dira ez badugu euskara eremu guztietan erabiltzen. Beraz, bada zereginik.

inkestie

Helduen danborradan talde gehiago ateratzeko aukera emango al zenuke?



Pati Zubeldia

(dendaria)

"Ados nago taldeak gehitzearekin tokia baldin badago.

Orain toki gehiago egitearen arazo horri irtenbidea ematea oso zaila iruditzen zait".

Maite Santos

(ikaslea)

"Bai, ados nago talde gehiago ateratzearekin helduen danborradan.

Tokiaren kontuaren irtenbidea, taldeak kaleetan banatzea dela uste dut. Urte batean batzuek Plaza Nagusian dan-

zer diyo?

BIZIBERRITZE PLANEAN EZ AL DIRA
EUSKARA IKASLEAK SARTZEN?

Urrian ekin zion Azpeitiko Mikelats AEK euskaltegiak 2001-2002 ikasturteari, eskualdeko hiru herrietara (Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa) euskalduntze, alfabetatze, Hizkuntz Eskakizunak eta EGArako ikastaroak eskainiz. Urtero legez, hauxe dugu AEKideok aurten ere erronka nagusia; hain zuzen ere, herritarrek dituen beharrak asetzea eta bide beretik geurea den euskara indartzea. Helburu hau bideratzeko asmoarekin AEK-k beste erronka batzuk ere abian jarri ditu; hala nola, Zestoan joan den urrian ospatu zen AEKeguna, herrietako jaietan parte izatea, Baite Euskara Elkartean eta Uzta-ria Kultur Koordinadoran kide izatea, AEK-ko ikasleak euskaraz herriratzea...

Azpeitiko AEK-ko euskaltegiak 75 ikasle ditu arestian aipaturiko ikastaroetan eta hauei eginko eskaintza burutzeak hainbat baldintza eta behar martxan jartzea dakarki. Hala nola, AEK-k sorreratik izan duen filosofiarekin bat, euskal herritar orok herri honetako hizkuntza ikasi ahal luke ahalik eta diru gutxien ordainduz. Honela, euskaldundu nahi ditugun ikasleei ahalik eta erraztasun handienak emanez gure hizkuntzan trebatzeko.

AEK-k, herrietako udalak herritarren zerbitzura daudela ulertzen duen heinean, herri bakoitzeko udal ordezkariengana jo izan du beti, ikasleei bidea erraztu asmoz. Baina udaletako erantzunak ez dira inola ere berak izaten.

Urola eskualdean, aurretik aipatu bezala, hiru herrietako udalekin izan ditugu harreman hauek, eta hauek izan dira lortutako emaitzak:

- Azkoitiko Udalak, euskara ikastaroak emateko kultur etxeko gelak utzi dizkio AEKri, eta bertan matrikulatuak izan diren ikasleek kurtsio amaieran matrikularen %50 eta %75 jasotzen dute, lan baldintzen arabera.

- Zestoako Udalak, AEK-k bere proposamena egin zionean, lehiaketa bat aurkeztu zuen, Udalak kontratu ikastaro bat egin nahi zuelako. AEK-k postua atera, eta egun Zestoako kultur etxean ematen dira ikastaroak, eta bertako ikasleek doan jasotzen dituzte klaseak.

- Azpeitian, aldiz, urteak joan urteak etorri, Udalarekin biltzeko ere arazoak izan ditugu. Aurten ikasturtearen hasieran biltzea lortu bagenuen ere, ia hiru hilabete pasatu ondoren ikasleek ez dute beka jasoko duten ala ez informaziorik. Gauza bitxia benetan abenduaren 2an Azpeitiko plazara gerturatu ziren herritarrentzat. Hainbatek usteko zuten Azpeitiko Udalak bere biziko konpromisoa hartu duela euskararekiko; baina euskara ikasten ari den hainbat azpeitiarrek, behintzat, ez dute inondik inora konpromiso horren gauzatzea ikusi. Zertan gastatu behar du hainbeste diru, euskara ikasi nahi duten ikasleei laguntza txikien ere eman nahi ez dion Udalak?

Dena den, AEK-k bere eskaera eginez jarraituko du, esan bezala, ikasle guztiak nahi duten lekuan eta nahi duten metodologiarekin euskara ikasteko eskubidea izan arte.

Mikelats AEK Euskaltegia

borra joz eta beste batean beste-
ek. Taldeak txandatu, alegia”.

Manoli Uranga

(langilea)

“Printzipioz, taldeak gehi-
tzearekin ados nago. Bi edo
hiru txandatan taldeak banatu,
batzuk parroki aurrean eta beste-
ak Plazan joz; lekuaren arazoa ho-
rrela konponduko nuke”.

Joxe Manuel Iriarte

(dendaria)

“Taldea gehiago ateratzea
ondo legoke. Talde gehiago

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

Hurrengo hiletik
aurrera egongo da
martxan atal hau;
www.uztarria.com
helbidean sartu
eta eman erantzua.

GALDERA.
Euroarekin gehi-
ago edo gutxiago
gastatuko duzu?

sartzeko taldeak kaleetan banatu
beharko lirateke, hala talde gehi-
gorentzat lekua egonez. Badaude
irten nahi duten taldeak eta leku
faltagatik ez direnak ateratzen”.

Ivan Aldehuelo

(ikaslea)



“Ados nago hel-
duen danborradan
talde gehiago sar-
tzearekin. Tokiaren
arazoa konpontzeko
nire proposamena danborzaleak
eta taldeak estuago jartzea da.
Bestela, ikuslegoarentzako toki
murriztuko nuke eta, horrela,

jende gehiagok hartuko luke parte
danborradan”.

Iban Izagirre

(ikaslea)



“Nik danborradan
nahi duten talde
guztietan irtetzeko
aukera emango
nieke. Tokiaren ara-
zua dagoela eta danborradan irte-
teko aukerarik gabe ez nituzke
utziko. Plazan ez badira talde
danak sartzen kioskoa botatzea
proposatuko nuke eta horrela leku
gehiago izango da danborrada-
rako”.

“AEKideon erronka
nagusia, herritarren
beharrak asetzea eta
geurea den euskara
indartzea da”

“AEK-k, herri
bakoitzeko udal
ordezkariengana jo du
beti, ikasleei bidea
erraztu asmoz”

“Azpeitian ia hiru
hilabete pasa ondoren
ikasleek ez dute beka
jasoko duten ala ez
informaziorik”

hemerotekie

BEIXAMA ETA MOMO

Juan Inazio Zulaika (Egunkaria, 01-12-05)

Sinetsi nahi dut ipuinetan. Sinetsi nahi dut egunen batean magia eta fantasia pilotalekue-
tan murgilduko direla. Mutiko zintzoak *Tar-
talo* beldurgarria garaitu zuen bezala, *Beixama*
eta *Momo*, egunen batean, Eugiren eta Belo-
kiren aurka garaile aterako direla. Sinetsi nahi
dut benetako ustekabeak, lau t'erdiko txapelketan,
Barriolaren joko bikaina eta Nagoreren por-
rota izan direla. Eta ez Iban Otaegirena eta
Medina mexikarrarena, azken honek bigarren
mailako txapelketan.

Zorionez, fikzioa errealtatearen jantziz janz-
ten da noizbehinka. Pilotan den-dena ez dago-
ela aurretik lotuta, alegia. Sinetsi nahi dut
Beixama Otaegik, Azpeitiko postariaren seme-
ak, egin duena ez dela izan egun bateko lorea.
Datorren urtean berriro Beixamak parte hartuko
duela lau t'erdiko txapelketa nagusian eta ez
kanporaketa bat, bi eta hiru soilik gaintutako
dituela, seigarrena ere bai, txapela irabaziz.

Fernando *Momo* Medina, Mexikok eman duen
lehendabiziko eskuzko profesionala, pasa den
udan etorri zen Euskal Herrira, Asegarceren
eskutik. Leitzan ikusi nuen debutaren egunean.
Partidu txukuna jokatu zuen, estilo egokia era-
kutsiz, baina artean ametsetan ere ez nuen
pentsatuko egingo lukeela egiten ari dena. Ba-
dakit bigarren mailatik lehenengora jauzi handia
dagoela. Baina mexikarra egiten ari denak meri-
tu izugarria du. Ia-ia ipuinetatik sortutako isto-
ria dirudi. Otaegirena bezalaxe. Nork esango
zukeen iaz, aurten, urriaren 19tik hona, Beix-
ama ibiliko litzatekeela dabilen eran? Azpeitiko

kaleetan bi pauso segidan eman ezinik, jendea-
ren zorionak jasoz.

Euskal Herrira etorri berritan, Fernando *Momo*
Medinak esan zuen Belokiren aurka jokatzeko
amesten zuela. Belokik lo lasai egin zezakeela
idatzi nuela gogoratzen naiz. Ikusitakoa ikusi
damututa nago hura esanaz; izan ere, zeinek
esan datorren urtean ez dela gertatuko?...

Azpeitia ez da Hollywood. Euskal Herrian
ametsen faktoriak gutxi produzitzen du eta erre-
alitate gordinena nagusitzen da, Beloki eta
Eugirena, datorren igandean Eibarren ikusiko
dugun final baten itxura duen finalerdia. Hala
ere, ilusioa ez dute galduko ez Beixamak ez
Momok, ezta jarraitzaileok ere.

Otaegiren lanpara ahaltsuaren argia Eugiren
aurka itzali zen. Laster bere etxean telefonoak
zalaparta gutxi aterako du eta Azpeitian posta
banaketa normalizatu egingo da; izan ere, aita
Udaleko posta banatzailea denez eta batekin
eta bestearekin hizketan semeari buruz gera-
tzen zenez, posta ez omen zen garaiz iristen.
Otaegik aurki itzuli beharko du Errioxako,
Soriako eta Madrilgo zirkuituko pilotalekue-
tar. Herriz herri furgoneta batean mugituko da,
Garfeko enpresaburu den Garrido *El Bonbero*,
gidari lanetan.

Gogoan geratu zaigu Beixamak eginiko lana,
ipuina edo errealtate izan. Eta esperantza dato-
rren urtean bertan izango dela; izan ere, posta-
riaren semeak bitan deitzen baitu beti. Ametsen
faktoriak Euskal Herrian gutxi ekoiztu arren,
Mexikotik etorri berria den *Momo* Medinak ez
du horren berri. Goza dezala ipuina idazten den
bitartean.

hausnartzen

GAIA: 'Komunikabideak Azpeitian'. Zergatik erosten dugu prentsa espainola? Zergatik ez dugu irakurtzen euskarazko prentsa? Herri abertzalea izanik, zerk hutsegiten du?...

Oharra: hurrengo bi aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

KOMUNIKAZIOAREN JAUNTZOEN BOTEREA MUGATU BEHARRA DAGO

Gaur egun ezagutzen ari garen informazioaren oparotasunak eta komunikabideen ugaritzeak ez dituzte beraiekin herritar informatuagoak eta gizarte demokratikoagoak ekarri. Geroago eta zabalagoak dira komunikazioaren inguruan antolatzen ditugun gure bizitzaren atalak: politika, ekonomia, elkarrekiko harremanak, aisialdia,... Baina, aldi berean, hiperkomunikazioaren garai hauean, inoiz ez bezalako uztartzea gertatzen ari da botere ekonomiko eta informatiboaren artean, antolamendu politiko demokratikoa bera ere kolokan jarritz.

Informazioa eta komunikazioa negozio dira aspalditik, merkatuaren eta errentagarritasunaren esanetara antolatuak. Baina azkenaldi honetan kontzentrazio prozesu ikaragarriak ari dira gertatzen, enpresa gutxi batzuen eskuetan uzten dituztenak kultura, informazioa eta komunikazioa produzitu, antolatu, argitaratu eta herritarrengana helarazteko ahalmena.

Ikusi bestela zer gertatzen den Espainian, non hiru multimedialede eratu diren urte gutxitan, hango –baina baita hemengobenetako *komunikazioaren jauntxo* bilakatu direnak: Correo, Telefonia-Admira eta Prisa. Azken mugimendua, hain zuzen ere, Bilboko Correo komunikazio taldeak, besteak beste Azpeitian gehien irakurtzen den egunkariaren –*El Diario Vasco*– jabe denak, eman du duela pare bat hilabete, Madrilgo ABC egunkaria argitaratzen duen Prensa Española taldea erostean. Dagoeneko, ezer gutxi gertatzen da Espainiako komunikazioaren munduan enpresa hauen kontrolatik kanpo, berdin Estatu mailan zein eremu lokalean.

Zuzenean edo zeharka hiru talde horiek Espainian egunero zabaltzen diren egunkari-ale guztien erditik gora kontrolatzen dituzte: %20tik gora Correo taldeak, menpe dituen 18-23 egunkariak medio; %20tik gertu Telefonikak ere –nahiz eta zeharka (Recoletos-Pearson-en bitartez) eta azken zurrumurruak Correo-ren eskuetan jartzen dituzte egunkari hauek (*El Mundo*, *Marca*, *Expansión*); pentsa orduan noraino helduko litzakeen El Correo-ren indarra–; eta %15 inguru Prisa-k (behinik behin *El País* eta *As*-ekin). Eurenak dira baita telebista pribatuak (Tele 5, Antena 3 eta Canal Plus, hurrenez hurren) eta sateliteko plataformak ere (Via Digital Telefónica eta Canal Satélite Digital Prisa). Eta euren da, orobat, irratia: gutxienez parte hartzea du Correo COPE-n (%8); Telefonica, aldiz, Onda Cero-ren jabe da eta Prisa SER-Union Radiorena; guztira irratia entzuleriaren erditik gora. Gainera, albiste-agentziak (Correo Colpisa), asteburuetako gehigarriak (*Suplemento Semanal Correo*, *EPS* eta *La mirada El País*-ek), Internet-eko zerbitzariak, argitaletxeak, ikus-entzunezko produkzio-etxeak eta abar luzea menderatzen dituzte.

Egitura horrek isla zuzena du, nola ez, baita Hego Euskal Herrian ere, are maila larriagoan oraindik. Prentsan Correo talde-



ak EAEn banatzen diren egunkari-aleen %65-70 bitartean menderatzen baititu eta *Diario de Navarra*-k Nafarroako merkatuaren %70etik gora hartzen baitu. Eta irratian eta telebistan EITBren presentziak kontzentrazio mailak leundu egiten baditu ere, nabarmena da, halaber, talde horien eragina eta boterea SER eta COPE kateen bitartez. Begiratu, gainera, lau hiriburuetako telebista lokalekin gertatzen ari dena. Prisa Iruñean eta Donostian kokatu da zuzenean Pretesa-Localia-ren bitartez (eta Bilbon eta Gasteiez-en ere bai, zeharka, Euskaltelekin duen hitzarmena medio); Correo, berriz, Donostian eta Bilbon dago Teledonosti eta Bilbovision-ekin, baina arlo honetarako eratu duen filialarekin –Atlas– laster hedatu egingo ditu eraginak.

ZER EGIN? Honako komunikabideen jabetza-egiturak ez dio onik egiten gure herriko bizitza demokratikoari, are gutxiago lagundu dauzkagun arazoei tajuzko irtenbideak bilatzeari.

“Prentsak eragin politikoa badauka, handia gainera. Akaso botoa emateko orduan ez hainbeste, baina eragin politiko handia dauka”

Iban Arregi

“Hiperkomunikazioaren garai hauetan, inoiz ez bezalako uztartzea gertatzen ari da botere ekonomiko eta informatiboaren artean”

Patxi Azpillaga



Gogoratu bestela iazko maiatzeko hauteskundeetan gertatu zena. Alde honetatik ez da oso ondo ulertzen PNVren estrategia Prisan bilatuz, itxuraz, Correori aurre egiten lagunduko dion bazkidea: ez da berriro ezer entzun Gipuzkoan zabaldu asmo zuten egunkari proiektuaz, baina indarrean daude oraindik EITB, Euskaltel eta Sogecable-ren (Prisaren ikus-entzunezko atala) arteko hitzarmenak. Arazoa ez baita komunikazioaren jauntxo bat edo bestearen artean aukera egitea, baizik eta jauntxo horien boterea mugatzeko arauak ezartzea eta betearaztea, zerbitzu publikoaren irizpideak sakondu eta garatzea, komunikazio eremu berriak zabaldu eta babestea multimedia-taldean eraginetik. Euskal Herriak, bakeak, demokraziak eta euskarak berak ere eskertuko lukete.

Patxi Azpillaga (EHUko irakaslea)

EZ DA NORMALA AZPEITIARRONA

El Diario Vasco, 1.367 ale; Gara, 197; Egunkaria, 117; Deia, 57. Azpeitiko larunbat bateko prentsa kontsumoaren datuak dira. Ikus daitekeenez, prentsa espainolista erosten da gehien, El Diario Vasco –lagun baten arabera, Gipuzkoako ABC–. Ez da normala. Zeozer ez da ondo egin.

Azpeitian boto abertzalea nagusi da. 1999ko udal hauteskundeetan %91k EAJri, EHri eta EAri eman zieten botoa. Baina Azpeitian, prentsa espainolista nagusi.

Baten batek galde dezake: “Eta zer zerikusi dauka batak bestearekin?”. Edota: “Datuok erakusten dute prentsak eragin politiko txikia daukala”. Bada horrela pentsatzen duenik; baina nik kontrakoa uste dut: alegia, botoak eta etxean sartzen dugun egunkariak, ideologia aldetik, nahikoa antzekoak izan beharko luketela; eta bai, prentsak eragin politikoa badauka, handia gainera. Akaso botoa emateko orduan ez hainbeste, baina eragin politiko handia dauka.

Bestelakorik esatea gezurra esatea litzateke. Azpeitian aldearekin gehien saltzen den egunkariak badituelako helburu politikoak –helburu komertzialez gain–. Eta jendearengan erreferentzia politikoak, kulturalak eta lurraldeari dagozkionak sortzen dituelako, betiere helburu politiko horien arabera. Bestela, esan: azpeitiarrok zergatik esaten diogu “euskal-frantsesa” baionatar bati? Zergatik esaten diogu “Euskal Herria” Euskal Autonomia Erkidegoari? Ezagutzen al ditugu Koldo Izagirreren edota Jose Luis Otamendiren liburuak eta jarduerak? Futboleak, zein da azpeitiarrontzako “la selección”? Euskal kultura, bertsolaritza, trikiritza, Atxaga eta antzerki topaketak baino zerbait gehiago dela ba al dakigu? Eusko Ikaskuntza zer den ba al dakigu? Eta Lizarra-Garaziren porrotean komunikabide espainolistek –Gipuzkoako ABC-k ere bai– egundoko eragina izan zutela?

Eta ez, hori ez da prentsaren ondorioa bakarrik, jakina. Baina prentsaren ondorioa ere bada.

SABOTEATZAILE FINA. Komunitate abertzalea nagusi zen Lizarra-Garazi garaian Azpeitian ere; prozesu demokratiko horren alde geunden azpeitiar gehienok. Baina Lizarra-Garaziren saboteatzaile finetako bat, orduan ere, fin-fin etxera eramaten genuen. Eta horretan dihardugu.

Komunitate abertzalea nagusi da orain ere Azpeitian. Teorian, zazpi herrialdeok gutxienez kultur-komunitate-(herri) bat osatzen dugula onartzen dugu ia denok. Euskara, hitzez, denok defenditzen dugu. Baina komunitate horren saboteatzaile finetakoa, euskarari balio ofizialik errekonozitzen ez diona, gaur ere fin-fin etxera eramaten segitzen dugu.

Eta ez, hori ez da Azpeitiko egoera bakarrik, jakina. Baina Azpeitiko egoera ere bada.

Eta ez da normala. Eskelak? Azpeitiko karta? Reala? Hori bakarrik balitz... Bukatzeko, ohar bat: ez dut esan nahi egunkari bakarra irakurri behar dugunik, besteenak ezagutu behar ez ditugunik; baina egunero ordaintzen ditugun 0,75 euro horiekin zer munstro elikatzen ari garen ba al dakigu?

Iban Arregi (kazetaria)



AZKEN SOSAK EUSKARARENTZAT

Euskararen alde dirua biltzeko ehun itxulapiko banatu ditu Kontseilukoek herriko dendetan eta tabernetan

Jon Aranburu

Kontseiluak abian jarri berri du dirua biltzeko plan berri bat: euroak, pezetak eta liberak euskarari plana. Plan honekin Euskal Herriko 8.200 taberna eta komertzioetan beste horrenbeste itxulapiko jarriko ditu. Itxulapiko hauetara botatzen den dirua —lehen euroak edota azken pezetak edo libe-

rak—, Kontseiluarentzat izango da eta honek bultzatzen dituen ekimenak aurrera eramateko erabiliko da dirua.

Azpeitian ehun itxulapiko jarri dira, eta herrian plana aurrera eramateko osatu den lantaldeak komertzioetan-eta banatuak ditu itxulapikoak. Hauek gabe gelditu diren komertzioek ere aukera dute ipintzeko, eta horretarako herriko lantaldeekin harremanetan jarri behar-

ko du eta itxulapikoa (kartoizkoa eta urdina) emango diote bere dendan ipintzeko. 943 - 15 10 89 edota 943 -15 03 58 dira harremanetarako telefono zenbakiak.

Baina Azpeitia ez da Kontseiluak hautatu duen herri bakarra plana burutzeko, Euskal Herriko beste 250 herritan banatuta daudelako euskararen aldeko itxulapikoak. Herri-tarren aldetik harrera ona izan dutela esan du Kontseiluak.

OTSAILAREN 28 ARTE. Abenduaren 21etik 30a bitartean jarri ziren itxulapikoak herriko denda eta tabernetan, eta jada eman daitezke euskararen aldeko lehen txanponak. Kanpainaren helburua azaltzeko itxulapikoak jarri dituzten dendariei informazio gutun bat banatu zaie argibideak emateko.

Kontseiluaren kanpaina otsailaren 28an amaituko da, hau baita pezetan eta liberan azken eguna. Kanpainan parte hartzen duten dendetan eta tabernetan kanpainaren berri ematen duten kartelak jarrita egongo, dendako edo tabernako erakusleihoan edota barruan, jendeak kanpainaren berri izan dezan.

Beraz, azpeitiarrek patrikan dituzten azkeneko sosak baliorik gabe gelditu aurretik sosak euskararen alde emateko aukera eskaintzen dute Kontseilukoek itxulapikoen plan honekin. ●

LOIOLA KLINIKA



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
 - Erretina askatze.
 - Makulako gaisotasunak.
 - Erretinopatia diabetiko konplikatuak.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-C behea ◆ Tfnoa: 943 15 17 52 ◆ 20730 Azpeitia-Loiola


SONS - MASKAR



estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

BERTAKO HARAGIA GURE HARATEGIETAN



Euskal Herriko Okela,
osasuntsua, zapoetsua eta naturala



PATXO

EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



MATXIN

bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Beloki

Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA

Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

BERMEAK

JATORRIA

KALITATE GORENA

ERABATEKO KONTROLA

BENEKOTASUNA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA

EUSKO LABEL



KALITATEA

KALITATEA NAHI BADUZU
BILATU ZIGILU HAU

udal erabakiek

2002. urterako tasa, zergak eta prezio publikoak onartuta daude

Aurtengoan Udalak zerga eta tasetan Gipuzkoako batez beste-ko indizearen azpitik daudenetan %4a igoko du. Kontribuzioa kobratzeko ezarritako zerga tipoaren kasuan, iazko indizetik hiru aldiz jaitsi da: etxebizitzetan (0,2141ekoa izango da) eta bi aldiz industrian (0,3587ekoa). Uraren prezioari dagokionean, aurten denda eta tabernei tasa berezia jarriko zaie (orain arte hauei industria irizpidea ezartzen zitzaien). Uraren tasa, etxebi-

zitzei %6a igoko zaie, denda eta tabernetei %6eko iguera eta industriari %10eko iguera. Ibilgailuen zerga aurten %4a igoko da (Batasunako udal taldeak izoztea edo bere horretan uztea eskatu zuen, Gipuzkoako antzeko herrien batez bestekotik gora dagoelako). Jarduera ekonomikoaren zerga %4a igoko da. Zaborraren zerga EAJ eta EA-ren aldeko botuez %16a igotzea erabaki zen Udalean. Estolderi dagokion zegari berriz %15eko iguera ezarriko zaio. Kirol zerbitzu publikoetan %10eko iguera ezarriko da eta gizarte-ekintzatik ematen diren hainbat zerbitzuen prezioetan ere iguera izango da.

Amets Arzallus

gurien...

bertsolaria

«Bertsotan serio egiten dugu eta lagunarte ederra dago Azpeitian»

Nerea Uranga / Amets Arzallus hendaiarra aurtengo ikasturtean Erniarraitz Bertsozale Elkarteko bertso eskolara batu da. Leioan kazetaritza ikasketak hasi eta Zumaian amonaren etxean pasatzen du astea, eta Jokin Urangak proposatu zion Azpeitiko bertso eskolara gehitzea. Halaxe hasi zen bertan.

● **Nolako giroa aurkitu duzu bertso eskolan?**

Giro polita dago. Bertsotan serio egiten dugu eta bestetik, agian garrantzitsua goa dena, lagunarte ederra dago eta gustura etortzen naiz.

● **Hemen batzuk zure mailarekin beldurtuta ere azaldu dira...**

Hauek beldurtuta? Hori konfiantza hartu arte izaten da. Oartzunen ere ibiltzen naiz bertso eskolan eta han lasai kantantzen dut. Hona hasieran etorritakoan erreparo pixka bat ematen zidan, koadrila berria eta orduan ni ere pixka bat beldurtuta etortzen nintzen. Gero txapelketa prestatzen ibili ginenez, ni landuta edo nahiko sasoiaren nengoen, neure buruari pixka bat eskatuz ibili naiz. Orain uste dut lasaituko garela.

● **Azpeitian inoiz bertso saioaren batean kantatu al duzu?**

Uste dut ezetz. Saio bat egitekoak ginen, Orkatzen, baina justu bezperan Beñatena eta mendizaleena gertatu zen, eta bertan behera gelditu zen.

● **Txapelketa Nagusian zer moduz? Ia finalera sartu zara!**

Gustura nago egindako lanarekin. Hasieran beti izaten da mina Belodromorako atean geldituta, eta zaila izaten da une hori gainditzen. Baina denek ezin zuten pasatu eta baten batek atarian ere gelditu behar zuten. Atzerago ere gelditu dira gehiago. ●

“Txapelketa garaian neure buruari pixka bat eskatuz ibili naiz bertso eskolan”



Herriko kirolari onenen sariak banatu dira

Nerea Uranga / Abenduaren 29an banatu ziren 2001. urteko herriko kirolari onenentzako sariak, eta joan den urteko *Kirolaria* saria Leire Agirre eskalatazailak jaso zuen. Guztira, kirol desberdinetan, herriko taldeek eta elkarteek aukeratutako kirolariak saritu ziren. Eta Azpeititik kanpoko klubetan edota taldeetan dauden azpeitiar kirolari onenak ere kontuan izan ziren sari banaketan: hala nola, igeriketa, atletismoa, pilota, txirrindularitza eta arrantza kiroletan dabiltzanen artean hamar aukeratu. Udaletxeko udalbatza aretoa izan zen kirolarietaz egindako lanagatik saria jaso zuteneko lekua. ●

TALDEA	KIROLARIA
Izarraitz Igeri Elkartea	Antonio Ruiz
Lagun Onak Futbol Taldea	Xabier Alberdi
Iraurgi Atletismo Taldea	Andres Orbea
Illunpe Pilota Elkartea	Aitor Bidezabal
Lagun Artea eskuderia	Antonio Aristi
Judo Kimura	Amaia Goenaga
Karate Elkartea	Arantxa Custodio
Areto Futbol Taldea	Iñaki Unanue
Ikasberri Kirol Elkartea	Aitor Agirre
Amue Kirol Elkartea	Xabier Madina
Lagun Onak Txirrindulari Elkartea	Ander Usandizaga
Lagun Onak Mendi Bazkuna	Milagrosa Ikastetxea
Iraurgi Saskibaloitza taldea	Josu Arozena
Nuarbe Sokatira Taldea	talde osoa
Waterpolo taldea	talde osoa
Igeriketa	Omar Urbieta
Atletismoa	Onintza Zeberio
Atletismoa	Nerea Etxeberria
Pilota	Iban Otaegi
Pilota	Kepa Peñagarikano
Txirrindularitza	Joseba Albizu
Txirrindularitza	Mireia Epelde
Txirrindularitza	Jon Azkune
Arrantza	Jose Mari Zendoia
2001 kirolaria	Leire Agirre

Babes ofizialeko etxeei lekua

Abenduaren azken bi astetan Enparan kalearen barrenean etxebizitza zaharrak botatzeko lanak hasi zituzten. Bertan Udalak Enparan kalerako iragarritako Udal Babeserako etxebizitzak egingo dira.



Enparan kalea. / NEREA URANGA

Udal Kirol Patronatoak aurtengo bazkietzarako izen-ematea ireki du

Udal Kirol Patronatoaren kirol instalakuntzak erabili ahal izateko aurtengorako bazkide egiteko kanpaina ireki da. Sendia, bazkide egiteko kuota 24.706 pezeta da urtekoa, 18 urtez behekoena 10.026 pezetakoa da eta 18 urtez goragoko helduena berriz 15.890 pezetakoa da. Hiruhilabeteko bazkietza egiteko aukera ere badago. Bazkietzak, kiroldegirako, igerileku estalirako eta estaligaberako eta pilotalekuetarako balio du.

pertsonajie



Leire Agirre

Leire Agirre eskalatzailea izan da aukeratua 2001eko azpeitiar kirolaria. Leirek emaitza politak lortu ditu aurten ere eskaladan. Munduko Kopako Txapelketan hamargarren bukatu du; azkenengo proban Birminghamen bosgarren gelditu zen. Espainiako eskaladako zailtasun mailako txapel-

ketan lehen postua lortu zuen irailean Oviedon. Zaragoza inguruan —Darokan—, Nazioarteko Ireki batean lehiatu eta lehen postuan gelditu zen. «Aurten txapelketa askotan ez dut parte hartu, baina atera naizenetan lortutako postuekin gustura nago. Oso maila ona dago». Azken hilabeteotan Alemanian bizi bada ere, abenduaren 29an 2001eko kirolari saria jasotzen izan zen herrian. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Urtarrilak 23 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:


IRABAZLEARENTZAT SARIA: Kimetz ileapaindegian (Azpeitian edo Eibarren) zerbitzu bat

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIYUE: dena ondo zegoen

IRABAZLIE: Iñigo Goenaga




Iñigo Goenaga izan da 24. garailea. Kiruri Jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi du, baita Uztarriaren elastiko bat ere. Argazkian, Iñigo Goenaga irabazlea bera agertzen da Kiruri Jatetxearen aurrean.

“Nahiago nuke, gauzak garbi esanda, enpresa handiago batean egotea”

Iban Otaegi
(pilotaria)

“‘Auntxa’ autodidakta izan zen, nahiz Elgetaren nondik norakoak ongi ezagutzen zituen”

Joxe Mari Iriondo
(kazetaria)



Patxi Aizpitarte.

“Eliza minoritarioa da, baina hala izan arren esanguratsua izatea da gure erronka”

Patxi Aizpitarte
(apaiza)

Lagun Onak M.B.k kritikatu egin du proiektioekin bat kirol hitzaldiak antolatzea

Iterea Uranga / Lagun Onak Mendi Bazkunak, berak abenduaren bigarren astean antolatutako mendi proiektioekin batera, aste berean, Udaleko Kirol Batzordeak kirolari buruzko hitzaldiak antolatu izanaren kritika egin zuen kaleratutako idatzi batean: “Lagun Onak M.B.k urteroko ohiturari jarraituz antolatu ohi dituen proiektio astea aurrera eramateko uztailaren 27an hasi zituen bere lanak, udaletxean abenduak 11, 12 eta 13an, gaueko 8:30ean Lagun Onak M.B.-ko lokalean burutuko ziren proiektioen berri emanez”. Ondorioz, Udalak egun beraietan eta ordu erdi lehenago kirolari buruzko hitzaldiak antolatu izanak kezka sortu dio Lagun Onak M.B.-ko lehendakaria eta batzordeari:

“Zer egingo ote zuen Udalak Lagun Onak M.B.-tik sarrera eman zitzaien eskutitzarekin? Zer egiten ote du Udalak herriarrek eta elkarteek Azpeitiko udaletxean aurkeztutako eskutitzekin, proposamenekin eta kezkekin?”. ●



Pilotariak, Udalak antolatutako hitzaldietako batean. / IÑAKI URANGA

bi erantzunak

Kirol zinegotziarena

● **UDALEAN ESKARIA.** “Lagun Onak M.B.k bere eskaria Udalean Kultura Batzordetik bideratu zuen. Aurrerantzean, udal kirol batzordeari zuzendu eta jakinaraztea aholkatzen da”, dio Alejo Urangak kritikari erantzunez.

● **HERRIAREN INTERESARI BEGIRA.** “Ekimen denak, herriko biztanleen beharrak eta interesak asetzeko nahian egiten dira, ez oztopo izateko”.

Batasunarena

● **KOMISIOA.** Batasunako Udal Taldeak ere iritzia eman du: “Alejo Uranga batzordeburuak guztia antolaturik aurkeztu zuen kirol batzarrean, eta komisio batek antolatu dituela adierazi, komisio hori nork osatzen duten zehaztu gabe”.

● **TALDEEN LANA.** “Herriko talde eta elkarten lanak herriaren dinamikan duen garrantzia oso kontuan hartzekoa da”.

AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

AMAIA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria

Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

alde zaharra
Azpeitiako
alde-zaharreko
merkatarien elkartera

“Adinekoek esan ohi dituzten esaerak entzutea asko gustatu izan zait beti”

Alaitz Olaizola
(antzerki-egilea)

motxien

Izarraizko mapatxoak atera dute azkoitiarrek

Izarraitz mendigunearen eskuko mapa bat atera du Azkoitiko Anaitasuna Mendi Bazkunak, bertako Udala eta Otarre Atsedenekuaren laguntzarekin. Mapaz gain Izarraitz inguruneak kokagune batzuk azaldu dituzte: Aitolako parkinga, Otarre, Maikutzeko potzua, Izkitturriko borda eta abar.

Joxe Luis Aizpuru Gure Irratiko koordinatzaile

Joxe Luis Aizpuru kazetariak *Egunkaria* utzi eta Gure Irratien egingo du lan hil honetatik aurrera, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskarazko hiru irrati koordinatzaile bezala.

abenduko hiru irudiyek



NEREA URANGA

UROLA IKASTOLAK SARIA.

Urola Ikastolak ISO 9002 ziurtagiria jaso zuen, abenduaren 18an. AENOR-eko ordezkariak eman zion Juan Amenabar ikastetxeko zuzendariari.



NEREA URANGA

TXORIXOA ETA TALOA.

Urtero bezala, Santo Tomas egunean txorixoa eta taloa izan ziren nagusi. Giro hotza egun zuen, baina giro beroa egon zen, batik bat eguerdian.



NEREA URANGA

LAKRIKUNEN BESTE BAT.

Lakrikun Azpeitiko antzerki taldeak beste lan bat estreinatu zuen abenduaren 14an, Azpeitian: Alaitz Olaizolaren *Garalderen requiem* antzezlan.

ODRIOZOLA ARDOAK

Julio Urquijo, 18
Tfnoa: 850011
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa: 15 13 16
AZPEITIA



Otamendi
Bitori Donda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Maitane &
MASAIK

Estetika

- . Depilazioak
- . Argizari epela
- . Argizari hotza
- . Azaleko tratamenduak
- . Makilaia
- . Solariuma

Masaiak

- . Kiromasaia
- . Kirol masaia
- . Drenai linfatikoa

Olazko Amaren Plaza, 9 - 6 c ♦ Tfnoa: 943 81 43 66

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

kitzika joyeria

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan


Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.70.13 AZPEITIA

'AUNTXA'-REN HERIOTZA. Abenduaren 13an hil zen Urrestillako soinu-jole handia, 91 urte zituela. Hamar urte zituela soinua hartu, eta ia hil arte egon da bere bizitza trikitiari loturik. Honatx, agur moduan, Imanol Arregi *Iturbide*-ren hitz batzuk

gertutik

Antonio Aranaga 'Auntxa'

Agur soinuaren aitzindariari



Usurbilgo lehenbiziko trikiti omenaldia izan zenean ezagutu nuen Auntxa. Orduan bi bikote osatu ziren: Auntxa-Miguel Iturbide eta Bitarte-Patxi Iturbide. Handik aurrera berpiztu ziren soinu-jole zaharrak, hainbat urtez isilik egon eta gero. Inoiz ez genuen aipatu zergatik izan zuen Auntxak geldiene hori. Usurbilgo hura eta gero, beste egun garrantzitsu bat Azepeitian eginiko omenaldi bat dugu; omenaldi hartara soinu-jole asko joan ziren, panderojoleekin. Orduan hasi ziren berriro Auntxa eta Iturbide herriz herri ibiltzen. Bada hor nonbait argazki famatu bat, Auntxa Elgetarekin eta Sakabirekin ager-

tzen dena; horrek esan nahi du zerbait izango zela.

TRIKITIA ZABALTZEN. Berak kontatzen zigun nola joaten ziren mugaz beste aldera, Bidarraira, eta hango kontuak kontatzen zizkigun. Berak sortu zuen mugaz beste aldean trikiti zaletasuna. Urte askotan joan ziren. Geroago, bi bikote joaten hasi ginen, zaharrak eta gazteagoak. Orduan ikusi genuen hark kontatuak egia zirela.

Urrutira autoz joan behar izaten genuenean, Auntxak niri deitzen zidan. Lehen aldiz Lesakara joan nintzen harekin, bi

egunerako. Gogoratzen dut nola esaten zidan: "Nik horrenbeste pieza banitian, eta orain ezin ekarri burura...". Isilik egoteak ez zion onik egin. Baina hari ardo onarena gertatu zitzaion: gero eta zaharragoa, orduan eta hobea. Euskal kantu berriak ikasi zituen, Nafarroa Behereako dantzak egiteko musika ere bai; meritu handia zeukan.

Gabon egun batez, Donostiako Loiola auzora joateko eskatu ziguten, kalejirak egiteko. Pozik ibili ginen, jendea pozik ikusten genuelako. Halako batean, mutiko batek honela esan zion: "Hain handiak zarete, eta eskean?". Garai alaiak ziren orduko haiek. Arreta handiz entzuten zen soinua.

● Hari ardo onarena gertatu zitzaion: gero eta zaharragoa, orduan eta hobea

Beste errekor txiki bat ere kontatu nahiko nuke. Disketxe batera lagunduko al nion esan zidan, eta han joan ginen. Disketxeko arduraduna azaldu zen, eta diskoa grabatzen hasi behar genuela esan zuen. Auntxak, orduan, zera esan zidan: "Ba al dauzkagu hamabi pieza jotzeko modukoak?". Eta nik: "Zerbait aterako da...". Hasi ginen zutik jotzen, bata bestearen atzetik, hamabi pieza, batere atsedetik hartu gabe; eta hor dago disko polita. Norbaitek egin ote du halakorik?

Besteek soinu-joleekin baino zintzoago ibiltzen nintzen Auntxarekin; zintzoa zelako. Harekin azkenengo saioa bere herrian, Urrestillan, egin nuen, bere omenaldi egunean. Kalejira egin genuen Auntxak berak, Boni bere azkenaldiko panderojoleak eta hirurok. Oroitzapen horrekin geratzen naiz. Agur, Antton.

Imanol Iturbide

“Kutsadura legez onartutakoaren azpitik dago”



Bederatzi udalerritako emaitzak alderatu eta gero, Tokiko Agenda 21eko arduradunek diagnostia kaleratu dute

Duela gutxi egin dute publiko Azkoitia-Azpeitiko diagnostia, eta Izaskun Zeziaga Azkoitia-Azpeitia Udaltalde 21eko teknikariarengana jo dugu horren berri izateko, elkartearen lehen urteurrenean hain zuzen ere.

● **Tokiko Agenda 21ek jada diagnostia egin du. Zer azpimarratu daiteke diagnostian?**

Diagnostia bederatzi udalerriren artean egin da: Laudio, Basauri, Santurtzi, Erandio, Amurrio, Zarautz, Legazpi, eta Azkoitia eta Azpeitia. Beste herrieekin alderatuta, guk ingurumen natural onetako dugu, baina horrek ez du esan nahi gauzak ondo egiten direnik. Basoa ustiatzeko teknikak aldatu egin beharko dira, daukaguna indartu eta ezagutarazi. Energiaren gaian, berriz, gehien guk

kontsumitzen dugu; besteak beste, Azkoitia eta Azpeitian enpresa handiak daudelako gertatzen da hori –Aceralia eta GSB–. Hondakinen kontuan antzera sortzen dugu; horri dagokionez, gaikako bilketarekin jarraitu nahi dugu.

● **Zuri, Agenda 21eko teknikari bezala, zerk harritu zaitu gehien diagnostian emaitzak ikusita?**

Azpeitiko auto kopuruak harritu nau gehien: mila biztanletik 545ek daukate autoa; Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekotik gora dago. Gurekin lanean jardun dutenak harrituta gelditu dira datu horrekin.

● **Ingurumen diagnosi horren arabera, Azpeitiak batik bat zer ezaugarri dauka?**

Datuen arabera, kutsadura maila legez onartuta dagoenaren azpitik dago. Kutsadura atmosferikoaren kasuan, datuak falta dira, eta estimazioak egin behar izan ditugu, datu errealik ez zegoelako. Badirudi Lapatxek ondo funtzionatzen duela, baina hondakinak hobeto kudeatzea nahi dugu.

● **Tokiko Ekintza Planaren proposamena aurkeztu duzue; zer da, eta zer suposatzen du?**

Gaikako emaitzak aurkeztuko ditugu. Orduan hasiko gara azaltzen ahultasunak, mehatxuak, puntu sendoak eta aukerak. Emaitzen arabera, ildo estrategiko desberdinak finkatuko ditugu, aurrera eramateko programa desberdinak egingo dira, eta gero ekintzak.

● **Tokiko Ekintza Plana martxan jarritzen denean, egitasmo berrietan eta nolako eragina izan dezake?**

Berez, eragin handia. Ingurumen aldagaia udaletako kudeaketa sistema osoan sartzea da helburua. Badakigu, dena dela, oso zaila dela. ●

Olio eta pilak berziklatzen

● Urrian hasi ziren Agenda 21ekoak etxe-ko olio biltzen. Lehenengo hilabetean 80 litro inguru olio bildu ziren, eta bigarrenengoan 120 litro. Santo Tomaseta ere jarri zituzten olio biltzeko ontziak herrian.

Pilak biltzeko 35 ontzi hori ere jarri dira herriko kaleetan eta auzoetan. Modu horretan, pilak eragiten duten kutsadura ere murriztu egingo dela uste dute Agenda

21ko arduradunek. Herri gehienetan ere abian jarri da ekintza hori.

Agenda 21ek, ordea, gai gehiagoren birziklatzea bultzatu nahi du. Une honetan arropak, altzairuzko objektuak eta abar birziklatzeko aurrekontuak aztertzen ari dira. Azterketa horren arabera, biltzen diren hondakin guztietatik %75 birziklatzeko modua izango da herrian.

Jon Aranburu

TRISTURA AZPEITIKO ETXERIK ALAIENEAN



La casa más divertida de Texas, putetxe bati buruzko filmearekin gogoratu naiz. Duela hila-bete inguru Azpeitiko etxe alaiaren funtzioa betetzen zuen Larre ospetsuko nagusia edo gerentea hil zen, Sebastian Benitez gizon ezaguna. Etxe horren inguruko berriak badakizkit, eta Benitez gizon estimatua eta maitatua zela esan behar da. Hau da: ez zela proxeneta makur eta arrunt bat.

Prostituzioarena denongan era askotako jarrerak pizten dituen mundua da. Katxondeoa, esate baterako. Benitezen hiletetan prostitutak parrokira azalduko zirela eta izan ziren hainbat txiste: "Eliztarrak gustura izango dituk", "bai zera, zenbaitek apuro ederra pasa beharko dik", "igual apaizen batek handiena" eta abar.

Prostituzioaren aurrean gizarteak orohar ezjakinarena egiten du, ezikusiaarena. Gure bizitza bi arotan bereizten da: egunekoa eta gauekoa. Eguna lana egiteko epea da, gizartean agertzekoa, zeure maila eta lekua erakustekoa. Gaua ezkutuko kontua da, gauaz egindakoak ez dezala eraginik izan zure eguneroko bizitzan. Ez da jardun behar gauaz egindakoak hortik zehar kontatzen. Beraz, prostituzioa gauaz egindako bekatu txikitat hartzen du gizarteak.

Hipokresia horren baitan bizi gara: etorkinak bidali egin behar direla dioen gizona gauean prostituta kolonbiarrarekin lasaituko da. Igandero mezetara joan eta ezkontza defendatzen duen kristau sutuak gauaz Larrera joanda jarriko dio bizigarri pixka bat bere bizitza sexual aspergarriari, emazte gizona ahaztuta neska gazte lirainari helduz.

Euskara bera hizkuntza pobrea eta iluna da maitasuna eta plazerrari buruz, gorputzari buruz, grinari buruz. Gaztekeraz *mujeres de vida alegre* izan direnentzat *emagald*u tetriko hori asmatu zuen norbaitek. Eskerrak *prostituta* hitz neutroa geratzen zaigun.

Gauzak aitortzen hasi beharra dago: Larre oso etxe garrantzitsua da (eta izan da) Azpeitiaren historian. Gazte askok eta askok hor ezagutu ditu lehenengo joaldiak, juergako azkeneko otartekoekin batera. Noizbait Larrera joan ez dena, Azpeitian, raro!



Mutilzaharren bizipoza izan da, lotsatien askalekua, kasino inprobisatua, egun arruntetan tabernak itxi ondoren geratzen zen leku animatu bakarra. Bizioen disfrutalekua izan da: parranda jarraitu nahi zuten gautxoriena, dirua jokatzeko gustatzen zaienena, libidua biziberritzeko gorputz eta estilo ezberdinak behar dituztenena, ligatzen ez zutenek frustrazioa hiltzeko behar zituzten emakumeen topalekua izan da Larre.

Hala ere, nolakoa izan da prostituten bizitza Azpeitian? Batzuk asentatu egin dira herrian, ezkondu ere bai, baina orohar existentziarik gabeko pertsonak izan dira. Beti disimulatu egin behar.

Beti halamoduzko begiratuak agoantatu behar. Gauean konfiantza osoz egondako gizonetzko hura ezin zuten goizean Eroskin agurtu, prostituten araua baita gaueko inor ez agurtzea egun argitan, gizonetzkoak *konpromisoan* ez jartzeagatik. Hainbat mutilzaharrek senideekin errieta latzak izan ditu prostituta etxera ekarri nahi zuelako. Hori ez da humanoa!


Emakume horiek zer agoantatu duten, eta zein, ez dago esaterik. Gizon asko oso txarra jartzen da mozkortutakoa, gizon asko putetxean emakumeak bere eskura daudela uste duen likits zikin bat bihurtzen da. Emakume horietako askok monumentua merezi luke Azpeitiko plazaren erdi-erdian.

Edo gutxienez, Benitezen hiletetan merezi zuten parrokiaren aurreko eserlekuan egotea denak, eta gutxienez Donostiako gotzaina etortzea haien eskuetan Jesusen gorputza jartzera.

HILEKO GALDERA. Euskara biziberritzeko plan hartan sinatu zutenetatik zenbat hasi ote dira euskaraz liburu bat, edo euskarazko egunkaria bederen irakurtzen?

Uztarriaren eskeintze katxarrue

Patxi Altunari buruzkoa izango da Uztarriaren laugarren biografia



Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizuna

- **NOR DA?** Euskaltzale handia. 1956an idatzi zuen euskarari buruzko lehen artikulua; 1980an euskaltzain oso izendatu zuten
- **ARGITALPENA:** Aurtengo azaro aldera argitaratuko da
- **EGILEA:** Josune Etxeberria euskal filologoa; azpeitiarra da
- **SALNEURRIA:** Sei euro
- **UZTARRIAKO BAZKIDEEK:** Dagoen tokian jasoko dute, debalde.
- **ARGITARATZAILEA:** Uztarria

albiste txikiyek

Kuota pixka bat gora

Urte honi begira komunikazio arloan proiektu ambiziotsua prestatu du Uztarriak –ikus zortzi orrialdeko gehigarria–. Horregatik, abenduaren 19an, bazkideen batzarrean, bazkideen urteko kuota 3.500 pezetara —21,04 euro— igotzea erabaki zen; orain arte urtean 3.000 pezeta eman dute bazkideek.

Bigarren hitzarmena

Uztarriak eta Azpeitiko Udalak hitzarmena sinatu zuten 2000. urtean, bi urterako. Hitzarmen hura abenduan bukatu da, beraz. Uztarriak, bigarren hitzarmenerako, komunikazioa proiektu osoagoa aurkeztuko dio Udalari: aldizkari berri-tua, webgunea eta liburuak biltzen ditu proiektuak.

Azpeitiarrei buruzko beste hiru biografiak



• **JOXE TAKOLO (argitaratua).** 2001eko maiatzean. Egilea: Enekoitz Esnaola.



• **ANGEL OTAEGI. (argitaratua).** 2001eko irailean. Liburuaren egilea: Iban Arregi.



• **IMANOL ELIAS.** 2002ko udaberrian aurkeztuko da. Liburuaren egilea: Mailo Oiarzabal.

510 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 3.500 pezeta - 21,04 euro / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2. ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Itsasi eta Sahatsa dantza taldeek beren sorreraren 25. urteurrena bete dute. Itsasik aurten ditu ospakizun handienak; Sahatsak egin berri ditu. Sasoi onean daude biak

EUSKAL DANTZA GUREAN

Testuak: Iñerea Aranburu

Sahatsa eta Itsasi dantza taldeak ospakizunetan murgildurik aurkitzen dira, aurten bete baitira 25 urte sortu zirela. Denbora asko igaro da hasiera haietatik, eta zenbait gauza aldatuz joan dira; esate baterako, dantzak. Itsasi taldearen arduradun nagusienetako Xabier Bidezabalen hitzetan, “hasierahasieratik taldea euskal kulturaren alor garrantzitsu bat izan da, eta gu, urteak aurrera doazen heinean, bere osoan mantentzen saiatu gara”. Hala ere, hori lortzea oso zaila izan dela dio hark, “ia ezinezkoa baita gaur egun dantzak lehen ziren bezala gordetzea. Irakasle bakoitzak gauzak aldatu egiten ditu, eta, horrela, orain dantzatzen diren zenbait dantza oso desberdinak dira lehenengo urte haiekin alderatzen baditugu”.

Sahatsa taldeko arduraduna ere, Juan Luis Lizabe, ados dago aldaketak egon direla esaterakoan: “Nire ustez, egon diren aldaketak handiak izan dira, eta adibide bat jartzerakoan motibazioarena esango nuke”. Haren esanetan, garai hartako motibazioa abertzaletasunean eta politikan oinarriturik zegoen. Hori horrela izan- ▶▶





“la ezinezkoa da gaur dantzak lehen ziren bezala gordetzea, irakasle bakoitzak aldatu egiten baititu”

Xabier Bidezabal
(Itsasiko arduraduna)

“Taldea maila onean dago eta oso pozik gaude; gerora horrela izatea espero dugu”

Juan Luis Lizabe
(Sahatsako arduraduna)

**ITSASIREN
ARROPAK**

1. Bizkainoa
2. Batelera
3. Maskarada-kantinersa
4. Maskarada-alkatea
5. Axuribeltza
6. Maskarada
7. Arrantzale jantzia



► nik, jendeak euskal dantzak ikasteko orain baino askoz ere "motibazio handiagoa" zeukan.

EGITURAN ALDAKETAK. Talde barmeko egiturak ere zenbait aldaketa sufritu dituela diote bi taldeetako arduradunek. Itsasiko Bidezabalen esanetan, "lehen taldea pertsona baten eskutan zegoen, bera arduratzen zen gauza guztiez". Baina, urteek aurrera egin ahala, beste formula bat jarri dute martxan: "Gaur egun taldeko partaide ezberdinez osatutako mahai bat dago. Mahai horretan hartzen dira erabaki guztiak". Orain arte modu horrekin oso ondo funtzionatu du taldeak, eta aurrera begira ez omen dute aldaketak egiteko asmorik. Sahatsa Dantza Taldean ere antzeko zerbait gertatzen da, hala dio Lizabek: "Taldearen buru bezala zuzendari ►►

**Itsasik
ospatuko
duena**



- **OTSAILEAN:** Argazki erakusketa egingo du.
- **MARTXOA-APIRILA:** Arropa erakusketa herriko dendatan.
- **MAIATZA:** Liburuaren eta bideoaren aurkezpena.
- **UZTAILA:** 27an, Luarna Lubre taldearen kontzertua.
- **IRAILA:** Dantzari Eguna.
- **AZAROA:** Itsasin ibilitako guztiek in dantza jaialdia.
- **ABENDUA:** Itsasi Eguna.

bat dago. Horren ondoren zuzendaritza batzordea eta batzar bat daude. Batzar horretan, hain zuzen, hartzen ditugu taldeko erabaki guztiak".

Baina, Itsasiko Xabier Bidezabalek dio "garai honetako aldaketa edo aurrerapen garrantzitsuena teknologiararena" dela. Internet eta komunikazio bideak asko zabaldu dira azken urte hauetan; horri esker, taldearen izena ere munduan zehar hedatuz joan da.

TALDEAK INDARTUZ. Itsasi eta Sahatsa Dantza Taldeak urteekin osatzen eta indartzen joan dira; momentu hauetan bi dantza talde sendo bihurtu dira. Itsasi Euskal Kultur Taldea dantzari, ttunturro eta musikariek osatzen dute. Alde batetik, helduen taldean 24 neska eta 16 mutil daude; txikien dantza eskolan, berriz, 140

SAHATSAREN ARROPAK

1. Batelerak
2. Behenafarroako neska
3. Amaia ezpata dantza.
4. Zuberoako makil dantza
5. Gipuzkoako neskak
6. Zaku zaharra
7. Loiolako neska jantzia



umek dihardute euskal dantzak ikasten. Dantzarietz gain, musikariak daude: 14-15en bat guztira.

Sahatsa Dantza Taldea azpeitiarrek (%60) eta azkoitiarrek (%40) osatzen dute. "Normalean erdi eta erdi ibili izan dira. Urte batzuetan azpeitiar gehiago egon dira, eta beste batzuetan alderantziz". Gaur egun, Azpeititik jende gehiago joaten dela dio bertako arduradunak, Lizabek. Sahatsa, dantzari eta musikoak kontuan hartuta, 70 lagunek osatzen dute.

Bi dantza taldeek, Itsasik eta Sahatsak, atzerrian ere ezagunak izatea lortu dute, urteetan egindako lanagatik. Itsasi taldea lehen aldiz 1985. urtean irten zen atzerriara: Valladolidera (Espainia). "Harrezkero, ia urtero izan dugu kanpora joateko aukera, nahiz eta pare bat urtetan ezin izan dugun joan". Pasa berri den udan Siziliako (Italia)

Sahatsak ospatu duena



- **UZTAILAK 7:** Taldekide eta taldekide ohien bilkura egin zen. Eta batzarren ondoren afaria.
- **IRAILAK 16:** Nazioarteko Folklore Jaialdia Azpeitian.
- **IRAILAK 22-30:** Betharram ikastetxean jantzien erakusketa.
- **URRIAK 6:** *Miarritze balleta.*
- **AZAROAK 17:** *Lehena eta oraina bateginik* jaialdia.
- **ABENDUAK 2:** Urrestillan jaialdia eta bukaera emateko bazkaria.


jaialdian parte hartzeko aukera izan zuten. Urte horietan denetan hainbat herrialdetan izan dituzte emanaldiak; besteak beste, Ingalaterran, Holandan, Frantzia, Belgikan, Bielorrusian eta abar. Sahatsa taldeak ere han eta hemengo jaialdietan parte hartu izan du. 1987an atera ziren lehenengo aldiz, Zaragozara (Espainia), han egiten zen jaialdi batean dantza egiteko. Handik aurrera, urtero joan dira norabaitera: Madril, Castello, Suitza, Grezia...

25 urte hauen balantzea egiteko orduan, bi taldeetako arduradunak bat datoz: balantzea oso ona dela diote biek. Nahiz eta hasierak beti gogorrak izan, merezi izan duela diote. Itsasi eta Sahatsa momentu onean daude eta oso pozik aurkitzen dira Bidezabal eta Lizabe. "Hemendik aurrera ere horrela izatea espero dugu", diote biek.


Itsasi atzerrian



WISMAR. 1995. urtean Itsasi Dantza Taldeak Alemaniako lurralde honetan egiten den jaialdian parte hartzeko aukera izan zuen. Argazkian ikus daiteke bertako jaialdian egin zuten dantza horietako bat; Amarauna dantza, hain zuzen ere.



CONCARNEAU. Orain dela hiru urte —1999an— joan zen Itsasi Dantza Taldea Frantziako herrialde hartara. Bertan antolatutako jaialdira joan ziren dantza taldeko kideak. Argazkian ikus daitezke jaialdi hartan irten ziren tuntuak.



SIZILIA. Itsasi taldeak atzerriera egin duen azkeneko bidaia Italiako irla hartara egin du, 2001eko udan. Hango jaialdian dantzatzeko gonbidapena jaso zuten, eta ez aukera alferrikaldu. Argazkian, Bizkainoz jantzita ageri dira dantzari azpeitiarrak.

Oargiri lekukoa hartuz une zailetan

Ondorengoei euskal dantzak erakusteko sortu zen Itsasi



Itsasi taldearen lehendabiziko jendaurreko emanaldi bat.

Azpeitiko Itsasi dantza taldea 1976. urteko udazkenean sortu zen, urri aldera hain zuzen. Urte batzuk lehenago bazen herrian beste dantza talde bat, Oargi izenekoa. Oargiko partaideen arteko harremanak okertzen hasi ziren eta berehala jabetu ziren zerbait egin beharra zegoela. Beraz, irtenbidea bilatzeari ekin zioten.

Pena eta samindura harekin, partaide batzuk (Mikel Larrañaga eta Begoña Aiz-

puru) beren seme-alabei eta hauen inguruko lagunei dantzak erakusten hasi ziren. Orduan sortu zen Itsasi. Hala ere, ez ziren urte onak izan Itsasirentzat lehendabiziko haiek. Frankismoaren ondorengo urteak bizi izan zituen taldeak. Baina une aproposa zela pentsatu zuten gustatzen zitzaizkien hura aurrera eramateko. Hasierako helburu nagusia, zekiten guztia beraien ondorengoei erakustea zen, hainbat urtean ika-

sitako euskal dantzak ez galtzeko, eta ahal zen moduan gizartean bizirik mantentzeko. Lehendabiziko urteetan jendeak oso ondo erantzun zuen. Horren argibide da honoko datua: hasieran talde finko bat zegoen, hamar lagunek osatua. Baina hirugarren urtean 30-40 lagun zeuden jadanik taldean. Gazte askok dantzak ikasteko gogoia zuten, eta dantza eskola jarri zen martxan. Lehenengo urteetan, arduradunek beraiek Oargin ikasitakoak erakusten zizkieten. Baina, denbora igaro ahala, zerbait berria ikasteko gogoia sortu zitzaien. Horrela, zenbait jenderen laguntzaz beste herrietako dantzak eta ohiturak ezagutzeko aukera izan zuten.

KARASUSAREN LOKALEAN. Lokal aldetik ere arazo ugari izan zituen taldeak. Lehendabiziko urteetan, Karasusak utzitako tailer zahar bat erabiltzen zuten entseatzeko; argia eta dena berak ordaintzen zituen. Gero Udalak hartu zuen bere esku argiaren eta uraren ordainketa. Hala ere, lokal hura ez zela aproposena-eta, beste bat eskatu zioten Udalari. Hamabi urteren ondoren, Udalak beste lokal bat utzi zion taldeari. Utzitako lekua zaharkitua zegoen, eta egokitzeari ekin zioten. Diru askorik ez zutenez, bakoitzak ahal zuen bezala materiala lortu (gurasoek lana egiten zuten tailerretatik egurra eta oholak hartuz...), eta era horretan lokala txukun samar jarri zuten.

Itsasi dantza taldearen jendaurreko lehendabiziko emanaldia sortu eta urtebetera izan zen, 1977an, herrian, Loiola auzoan. Harrezkero, ezin konta ahala emanaldi egin ditu.

Sahatsa atzerrian



CANTONIGROS. 1990ean Sahatsak Kataluniako Cantonigrosera egin zuen atzerriko bere hirugarren irteera. Bertan ospatu zen VII. Nazioarteko Dantzen Lehiaketan saria lortu zuten Azkoitiko eta Azpeitiko antzariek.



MADRIL. 1993. urtean beste bidaia bat egin zuten, oraingo honetan Alcobendasen (Madril, Espainia) urtero egiten den jaialdira. Urte hartan ospatu zen Alcobendas-eko VI. Nazioarteko Folklore Topaketa. Euskal Herriko ordezkari bezala joan zen Sahatsa.



GREZIA. Sahatsak bi urtean eduki du Greziara joateko aukera, eta ez du hutsik egin. 1996an Lefkada-ko XXXIV. Nazioarteko Dantzen Jaialdian izan zen; 2000. urtean, berriz, Agrinioko III. Nazioarteko Dantzen Jaialdian hartu zuen parte taldeak.

Juan Luis Lizabe

Sahatsa-ko arduraduna

«Hasierako garai haietan honelako gauzetarako gaur egun baino kontzientzia handiagoa zegoen»



Sahatsa dantza taldea 1976. urtean sortu zen, Urrestillan. Sorreraren eta geroko kontuen inguruan hitz egin dugu taldearen arduradunarekin: Juan Luis Lizabekin.

● **Nolatan dantza talde bat sortzeko ideia?** Urrestillako jendearen ideia izan zen. Bertako gazteek kultur talde bat sortzeko

gogo handia zuten. Eta dantza arloan hutsune zabala ikusten zuten, dantzak ikasten hasi ziren. Hori 1976aren erdialdean izan zen.

● **Garai zailak zirenez, oztoporik izan al zenuten taldea sortzeko orduan?** Ez. Jakina denez, diktadura amaierako ur-

teak ziren haiak, eta jendeak oso sentimendu abertzalea bizi zuen. Sentimendu hori azaltzeko modua euskal kulturaren barnean zeuden hainbat gauzez baliatzea zen; adibidez, euskal dantzak ikasiz.

● **Jendearen aldetik nolako erantzuna izan zenuten?**

Oso ona. Jendea berehala hasi zen interesa erakusten, eta segituan osatu zen taldetoxa.

● **Zenbat pertsonak osatzen zen sasoi hartan Sahatsa taldea?**

Hasiera batean jende gutxiri erakusten zieten dantzan. Taldea hamar mutilek eta dozenaren bat neskek osatzen zuten; baina, denbora gutxian, Azpeititik eta Azkoititik jendeak interes handia erakutsi zuen. Beraz, lehen urte haietako talde txiki hura handi bihurtzea posible zela ikusi zuten, eta hortik taldea sortzeko ideia.

● **Non entseatzeko zenuten?**

Hasieran Urrestillako plazan. Eguraldi txarra egiten bazuen, orduan eliza azpira joaten ginen. Eliza gaineko lokal txiki bat ere erabiltzen genuen, baina materiala eta arropak gordetzeko.

● **Sorreran zein zen helburu nagusia?**

Ez dakit garbi, baina entzun dudaren arabera, garai hartan euskal dantzen barruan zegoen hutsunea betetzea zen helburua. Behin taldea osatzeko aukera ikusi zenean, hurrengo helburua taldea euskal dantzen erakusle bihurtzea izan zen. Orduan gaur egun baino kontzientzia handiagoa zegoen honelako gauzetarako. ●

datue

7 liburu aurkeztu dira aurtentzen Azpeitian: Josu Bereziartuarena, *Joxe Takolo*, *Angel Otaegi*, *Joxe Lizaso*, *Mikel Garmendia*, *Urolalde Bertsolari* eta *Azpeitia Iruditan*. Bada zerbait!

dato historikue

160 urte dira herriko garbitokia egin zela; hain zuzen ere, 1842. urtekoa da Santiago kalean dagoen garbitokia.

esaldiye

“Euskararen iraupena bermatu gabe dugu oraindik”

Miren Azkarate
(Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburua)

esaerie

“Alferrik da, ura joan eta gero, presa egitea”

liburutik ttak

“1590ean zen, eta 82 urte zituela, Izu herriko (Nafarroa) abadea, Juan Solano Piniillos izenekoa, hamabi dukadoko isuna ordaintzera zigortua izan zen herri hartan espainolez predikatzeagatik, zeren eta, sententziaren arabera, ‘toki hartan ez dago gaztelera ez hitz egiten eta ez ulertzen duen inor ere, hizkuntza hori ez delako han erabiltzen’”.

Iñaki Egañaren ‘Mil noticias insólitas del país de los vascos’ liburutik jasotakoa. Txalaparta argitaletxea. 2001.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**NAGUSITASUNA
OSPATUZ**

Nagusitasuna agertzea gogozkoa dugu nonbait, eta ahalegin handiak egiten ditugu, iskanbila gogorak sortuta. Begiratu besterik ez dugu, gaur egun, Afganistan edo Israel aldera, beste zenbait lurralderen artean. Borroka baten ondorioak, ordea, desberdinak dira bertan parte hartzen dutenentzat. Jokaera neurtzeko derrigorrezkoa egiten bada ere garaiko ikuspegitik begiratzea, esaten dugunaren ezaugarria da, dudarik gabe, azpeitiar agintariak 1535eko irailaren 27an hartutako erabakia, ospatu nahirik Espainiako erregeak *Barbarroja* pirataren aurkako borrokan Tunizia eta Goleta bereganatu izana. Esan beharrik ez da, azpeitiar agintarien aldetik beraien sinesmen katolikoaren aurkako bat menperatzen zela, horrela iruditzen zitzaizela, eta ospatu beharrean aurkitu zirela.

Euskal Herriko beste zenbait herrietan bezala, ospatu beharra sentitzen zen Azpeitian ere; elizkizun eta prozesioak antolatzea erabaki zuten, eta, Bartolome deunaren egunean ez ezik, Andre Mariaren egunean ere, zezenak ateratzea erabaki zuten –lau zezen–, herritarrek jolastu zezaten. Horrez gain, dantza taldeak hartu zuen parte, eta gauetan berriz. etxetako balkoi eta lehioetan argiak piztu ziren.

Zezenetako bat Juan Saez Odriarena izan zen, eta bestea Odriozola deiturikoarena, bakoitzari dukat bat ordaindurik. Beste biak, Herarrizagakoa eta Arazkoa, erosi egin zituen herriak, beraien lana bete ondoren hil eta haragia saltzeko asmoan. Barrerak jarri ziren zezenak jolasteko tokia mugatuz, baina bi egunetan egin behar izan zuten lanaren ondoren, erabat txepeldurik gelditu ziren zezenak, hil-

garai bateko Azpeitiye ...Begoña Errastik kontatua

Auzo eta kaleetako jaiak

Santiago egunean Santiago kalean, eta Sanpedrotan Eskuztan, jai handiak izaten ziren orain urte batzuk

Nerea Aranburu

Azpeitiko garai bateko festak oso desberdinak izaten ziren, oraingoan aldean. Zenbait auzo eta kaletako festek oso harrera ona izaten zuten herritarren artean. Gaur egun, kale horietako festak ez dira ospatzen lehen bezala, galdu egin dira. Santiago kaleko festak dira horren adibide garbiak. Horratx Begoña Errastik esandakoa: “Inauterietan zezena oso ederra izaten zen. Orain haurrentzako parkea dagoen lekuan, Santiago kalean, ateratzen zuten. Alde batean Agirreneko kamioia jartzen zuten, eta bere inguruan kupel mordoak. Erdian zezena askatzen zen, sokarik gabe, librean. Oso ederra izaten zen. Garai hartan, gaur egun bezalaxe, izugarritzako afizioa zegoen zezenak ikusteko. Egia esan, hartu ere hartu genituen hainbat ostikada eta pasara eder! Zezenak gain, gero, Santiago egunean, uztailaren 25ean kale honetako festa nagusiak izaten ziren,

egun horretan ospakizun handiak egiten ziren. Zezenak edo sokamuturra garai hartan ez zen izaten herriko festa guztietan. Orduko San Sebastian jaietan, adibidez, ez zen zezenik ateratzen gaur egun bezala. Danborradaren kontu hori nahiko berria denez gero, orduan ez zen horrelako ezer egoten festatan, danborrada eta sokamuturra beranduagokoak dira eta. Egundorik, San Sebastian eguna, jai eguna izaten zen, baina Meza Nagusiaz aparte ez zegoen beste ekitaldirik”.

ESKUZTAN. Herri inguruko auzoetan ere festa garrantzitsuak egiten ziren: “San Pedrotan Eskuzta auzoan oso festa bereziak izaten ziren. Saninazioak pasatu arte jendea ez zen hondartzara joaten hasten. Festa horiek bukatzean, orduan hasten ziren denak kosta aldera mugitzen. Beraz, San Pedro jaiak heltzen zirenean, denak Eskuztara joaten ginen. Izugarritzako festa izaten zen bertan San Pedro egunean.



A zer txuletak! / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIKOA

● **ZEZENAK.** Herarrizaga eta Arazkoa zezenak, erosi egingo zituen herriak, beraien lana bete ondoren hil eta haragia saltzeko asmoan

tzorian, esaten zaigunez, eta beste biak ere erosi egin behar izan zituen herriak, gero guztiak bi dukat eta erdian saltzeko Juan Egibar jaunari.

Barbarroja ez ezik, zezenak ere, menpean azkenean...

xapo euskerie

Aitor Arruti

Arantzazu Aznillaga

(Euskal filologoak)

URTEA BERRI, ESAERAK ZAHAR

Garai batean esaera zaharrak barra-barra erabiltzen ziren Azpeitian, eta baita Azpeititik kanpo ere; gaur egun, dena dela, esaera zaharrak erabat bazterrean utzi ditugula dirudi. Hona hemen, 2002. urtea hasteko, urteko sasoi eta hilabetei dagozkien zenbait euskal esaera:

- Urtarril hotza, neguaren bihotza
- Otsaila bero, negua gero.
- Martxo elurtsu, urte garitsu.
- Apirileko trumoa, berrogei eguneko berdatea.
- Maiatza, lore, lore eta lore.
- Maiatzeko lorea, urrea baino hobea; garagarrilekoa (ekainekoa) batez baino hobea.
- Uztaileko harrabotsak (trumoa), laket ditu mahatsak.
- Abuztua dena festa, poltsari ongi kosta. Abuztuko lehenbiziko egunak, zorte egunak: lehena, abuztukoa; bigarrena, irailakoa; hirugarrena, urrikokoa; laugarrena, azarokoa; bosgarrena, abenduakoa; seigarrena, ilbeltzekoa; zazpigarrena, otsailekoa; zortzigarrena, martxokoa; bederatzigarrena, apirilekoa; hamargarrena, maiatzekoa; hamaikagarrena, ekainekoa eta hamabigarrena, uzta-koa.
- Iraila, udaren buztana eta neguaren hastapena.
- Urriko hilberrian elurra zuritzen badu, ondorengo zazpi hilberrian seguru zurituko du.
- Azaro, azaro egin eta itxaro.
- Abendu txuri, ez ardi eta ez axuri.



Kupelak Santiago kalean. / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIA

“ Urrestilla auzoko Sanjoanetako festetara oinez joaten ginen, ogia eta txokolatea hartuta ”

Begoña Errazti



Hango ekitaldi ederrena erromeria izaten zen. Herriko musika banda joaten zen eta han erromeria egin ondoren, musika bandarekin denak herriko plaza nagusira etortzen ginen. Plazan, beste pieza batzuk jotzen zituen bandak eta hor bukatzen zen San Pedro eguneko festa. Izugarritzko festak ziren”.

Oso jai ederrak, baita Urrestillakoak ere, Erraztik dioenez: “Sanjoanetan egiten ziren orain bezalaxe. Oinez joaten ginen ogia eta txokolatea hartuta arratsalde pasa. Urte batzuk beranduago autobusa jarri zuten Urrestillara joateko. Orduan autobus gainean eserita joaten ginen, bai jaietara eta baita eskuertsiotara ere. Hura gozamina autobus gainean joatea. Eskailerak izaten zituen autobusak gora igotzeko; han gora igo, eta bertan joaten ginen. Autobus batzuek, gainera, jarlekuak izaten zituzten”.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



URREA, INTSENTSUA ETA MIRRA

Badira ahaztu ezineko opariak: "Jaungoiko haurrari, errege magoek urrea, intsentsua eta mirra eskaini zioten". Urrea zer den badakigu; horren atzetik ibiltzen gara bizitzan zehar.

Jakina da Europa, Asia eta Afrika artean penintsula handia dagoela: Asia txikia; intsentsua eta mirra handik datoz.

Basamortuetan, milaka zuhaixka mozkote daude, olibano deituak, eta intsentsua lortzeko gaia den erretxina ematen dute, batez ere Oman-en. Ebakiak egiten dizkiote landareari, eta tantaka erortzen da. Tantak, kolorezko harri modura azaltzen dira eta gaitasun balsamikoak omen dituzte. Aintzinatik erabili da kosmetikan, sendakuntzan eta elizkizunetan. Hor dago oraindik perfumerik zaharrenetakoak, garestienetakoak eta estimatuenetakoak.

Mirra, beste zuhaitz txiki batetik lortzen da, zientifikoki *commiplora myrrha*. Somalian aurki daiteke batik bat. Intsentsuaren antzera lortzen da, eta olio usaintsuak, erretxina eta goma dauzka, besteak beste.

Ohiko sendakuntzan, produktu balsamiko bezala erabiltzen da, bronkioetako katarroak sendatzeko; espasmokontrako bezala, esteminak arintzeko; eta desinfektante gisara, zaurientzako krema edo pomada bezala.

Nazwa edo Salalah zokoetara bazoaz, ez ahaztu erostea; etxera itzultzen zarenean, ongiatorri berezia egingo dizue eta...!

● **ASIA.** Intsentsua eta mirra handik datoz. Nazwa edo Salalah zokoetara bazoaz, ez ahaztu erostea

komunikabideak



Tolosaldea bailarak badauka dagoeneko egunero herri informazioa euskaraz jorratzen duen egunkari bat: *Egunero* izenekoa. Abenduaren 18an sortu zen -goiko argazkian, lehen alea-, eta egunero argitaratuko da, astelehena izan ezik. Zortzi orrialdeko egunkaria da, eta bailarako 28 herrien berri ematen du, baita zerbitzuak ere. "Zabaltasuna" da bere oinarria. *Egunkaria*-ren eta Tolosaldeko *Galtzaundi* aldizkariaren artean Tolosaldeko Komunikabideak enpresa sortu dute, eta enpresa horren fruitua da *Egunero*. Enpresak hirugarren bazkidea ere izango du: bailarako gizarte eragileen ordezkaria. *Egunkaria*-k esan du beste eskualdeetan ere hasi nahi duela herri informazioa lantzen.

gertuko pasadizue

AGIRRE ETA LAZKANO BERTSOTAN

● **JOXE AGIRRE:** "Imanol Lazkanoren eta gure koadrilak Etxe Zuriko tabernan egin zuten topo. Haiek bazekiten ni bertsotan ibiltzen nintzena eta nire lagunek ere bai Imanolek kantatzen zuena, eta han hasi ziren gu tentatzen. Artean oso gutxi ezagutzen nuen Imanol. Nik bertsoa kantatu ahala hasten ziren nire adiskide horiek oihuka eta builaka eta gauza bera egiten zuten landetarrek Imanolekin. Geroztik oso adiskide handiak izan gara".

Joxean Agirre eta Jexux Muruaren 'Joxe Agirre, mozketa-aren mausua' liburutik hartua. Bertsolari. 1999.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



IZARRAIZPE
IKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA


Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

MIEL GURRUTXAGA



FELIX LUENGO



SOLDADUTZAKO OROITZAPEN HAIEK...

Urte honetatik aurrera ez bezala, gazteak lehen derrigor joaten ziren Armadara; oroitzen dituzte soldadu ohiek

Nerea Uranga / Almagola Iban

Soldadutzan egiten da bat gizon; hala dio esaerak. Beste batek, berriz, zera dio: gustuko lekuan aldaparik ez dela. Soldadutza, ordea, ez da gustuko lekua izan. Urte honetatik aurrera ez dago Espainiako Armadarako zozketarik. Lehen derrigorjota joaten ziren. Gustuko lekurik gutxi aurkitu dute nonbait. Hala diote Uztarriak jasotako testigantzek: Miel Gurrutxaga matximentarrak hamalau kilo galduta bukatu zuen soldadutza. Lorenzo Aranburuk hiru urteko soldadutza egin zuen, eta "hotela" —kalabozoa— ere

ezagutu omen zuen. Xanti Urangak, "une onak bai, baina une txarrak" ere pasatutakoa da. Felix Luengok Burgosen soldadutzan "hotzak" igarotakoa dela dio.

Miel Gurrutxaga Aranburu

"Euskaldunak ginela ikusita, zigortu ere errazago egiten gintuzten"

"Ni 1955ean joan nintzen soldadu, Burgosera. Villabonako lagun bat banuen

han, Pablo Etxeberria. Eta Hernaniko Alzueta sagardondegiko Juanito. Eta Juan Gonzalez Camino, Hondarribikoa (Gaztelakoa du abizena baina euskaldun eder askoa, eta jatorra mutila!). Eta Justo Ibañez legorretarra, euskalduna hura ere. Erdaraz ez genekien ia hara joan ginenean. Ikasi beste aukerarik ez genuen han! Euskaraz elkarrekin bagenbiltzan ere kriston begiratuak egiten zizkiguten. Euskaldunak ginela ikusita, zigortu ere errazago egiten gintuzten. Kanean egun batean neuri gertatutakoa: soldaduek ez genuen poltsikoetan eskurik eramaterik, beti firmes joan behar baitzen kanean ere, eta nik

mukizapia ateratzeko sartu nuen eskua, eta ikusi egin ninduten zelatan egon ohi ziren sarjentu horietako batek. Gu bezalako gazte baserritar eta ezjakin asko galdu egin da soldadutzan, eta gu zaintzea behar izaten zen, baina txorokeria bategatik zigortzea ez dago ondo. Alto eman zidaten, eskuak poltsikoan neramatzala esanez, baina ez zen egia. Painelua hartzera nindoala nik, baina harek sinetsi ez. Izena eta abizenak eskatu zizkidan. Faltsuak eman nizkion. Jose Ignacio Elorza Aranguren izena nuela esan nion. Gure kuartelean bat zegoen Elorza, neurekin askotan ibiltzen zena. Aranburu beste bat. Bata Joxe Mari zen eta bestea Luis. Beste izen bat eman nion zelatariari eta hurrengo egunean kuartelean galdetu ziguten ea zeinek eman zuen izen hura. Elorza ez zen. Aranburu ere ez. Ni ere ez. Ilea moztuko zidaten bestela! Kuartel guztia arrestatu gintuzten. Kapitainak libratu gintuen. Gu Campo de Cubillosen, Burgostik 34 kilometrora egon ginen”.

Lorenzo Aranburu



“Getarian Golindo baserrian egon nintzen ‘rebajauta’”

“Donostiara joan nintzen, han bandera jurau eta handik Oriora oinez, hankak denak txikituta, botak bai *uno zinkuenta* baino luzeago... Orio gainean puxka batean egon nintzen. Karrero ibilitakoa nintzen Amun, eta han ere karrero ibili nintzen. Mandoarekin eta karroarekin, enkarguak egin, barazkiak ekarri eta horrelakoak. Bolondresak eskatu zituztenean izena eman nuen, eta Getariara joatea suertatu zitzaidan. Hurrengo egunean munizioak eta kajak hartu, bi mando ere bai, eta Getariara joan nintzen. Batzuk Askisura joan ziren, eta beste batzuk herrian gelditu ginen. Eta Zumaiatik Getariara bitarteko ondartza gainean egon ginen kanpin denda; han bi edo hiru hilabete egin nituen. Getarian Golindo baserrian egon nintzen *rebajauta*. Alferrezak txerri txiki bat ekarri zuen, eta garoa bilatzeko agindu zidan. Bilatu nuen baserri batean, eta lagun egin nituen baserrikoak. Behin lagun eginda, garia ebakitzera-eta igotzen nintzen baserri; nere ordezkotatik jarri zuen alferrezak eta, baserri hartan lan egiteko modua eman zidan niri. Oso famili jatorra zen. Bi etxebizitzako baserria zen; etxeko jaunaren koinatua bizi zen bestean. Txakurra eta katua bezala konpontzen ziren. Behin

Intsumisioak arrastoa utzi du Azpeitian



Orain dela bost urte Azpeitiko udaletxean zintzilikatu ziren gazte batzuk. Ordukoa da argazkia.

haserretu egin ziren –nik lan egiten nuen etxeko gizonak, pistola bat zeukan—. Oikinan ziren festak eta handik etxeratu ginenean, atorra mahai gainean odoloduta zegoen; zerbait pasatu zelako susmoa hartu nuen. Etxekoandreak kontatu zidan dena. Hurrengo egunean, behiak jetzi nituen, eta joan nintzen goldara. Eta han ikusten dut agoazila; banuen kezka, pistola bilatu zutela-eta. Zuzenean niregana etorri eta galdetu zidan: ‘zu al zara *Azpeiti txikiye*, hemen soldadu dagoena?’. Hurrengo egunean epaitegira azaltzeko agindu zidan. Halaxe joan nintzen. Etxeko gizonari buruz galdetu zidaten, eta nik galdetutakoari erantzun nion. Hurrengo egunerako ordua ere jarri zidaten epaitegian, eta orduan alferrezarekin hitz egitea erabaki nuen. Hala, gehiago epaitegira azaldu beharrik ez nuen izan”.

Xanti Uranga

“Lana aitzakia hartuta ateratzen ginen kalera zerbait afaltzera”

“Donostian egin nuen soldadutza; 1963an joan nintzen, hogeit hila beterako. Zazpi duro kobratzen genituen hilabetean. Hilabete batean nire fusilaren pasadorea harrapatu zidaten, eta hogeit pezeta kendu zizkidan. Orduan neronek beste bati harrapatu behar izan nion. Han baserriko lanak egiten aritu nintzen Loiolako koartelean, hamar batek jarduten genuen. Nik batez ere oiloekin jardun nuen, jaten eman, garbitu eta horrelako lanetan.

Uela hogei, hamabost edota hamar urte soldadutzara joan ez zen herritarra traroa bazen, azken urteotan dena da arraroa. Intsumioaren mugimendua indarra hartzen joan den heinean, Espainiako Armadara joateari uko egin dien gazteak gehien joan dira. Azken urteotan ez da azpeitiar gazterik joan soldadutzara, Azpeitiko Udalerki emandako datuen arabera. Soldadutzara joateari uko egi-



tearen arrazoiak ugariak izan dira gazteen artean; hala nola, politikoak, ideologikoak, sozialak, historikoak edota giza arrazoiak.

Azpeitian soldadutzaren aurrean intsumiso egin zen aurreneko Roman Urrestilla da; 1990ean egin zen intsumiso eta 1993an izan zuen epaiketa; bederatzi gipuzkoar epaitu zituzten egun hartan, intsumisioagatik denak. "Espainiako Armadari uko egitea erabaki genuen -kontatzen du Romanek-. Bederatzi lagun ginen, eta ni bakarrik azpeitiarra, besteak Donostialdekoak eta ziren. Epaiketa egunean bederatziok ez deklaratzearabaki genuen, eta halaxe egin genuen". Bilatu eta atxilotzeko agindupean izan ziren denbora batean, baina Romanen atxilotzeko agindua galdu egin zen Azpeitiko epaitegian. "Garai hartan ekintza mordoska egin genituen Donostia aldean; erabakita genuen norbait kartzelaratzaren bazuten denak sartzea. Espainiako Gobernua militarrean eta kateatu ginen. Baina orduan Ertzaintzak ez gintuen atxilotu nahi izan. Eta halaxe, hirugarren gradua eman ziguten. Baina nire aginduaren paperak Azpeitiko Epaitegian galduta gelditu ziren".

Urte gutxira, Azkoitiko eta Azpeitiko Antimilitarista Tal-

datua

● AZKEN HIRU URTEAK.

Derrigorrezko soldadutzaren azken hiru urteotan (1999., 2000. eta 2001. urteetan) ez da azpeitiar gazterik joan Espainiako Armadara, Azpeitiko Udalerkiaren datuen arabera.

deek elkarlanean makina bat lan egin zuen arlo horretan. Intsumisioa aldarrikatuz, eta udalek beraiek intsumisioaren alde lan egin zezaten, "ordu artean bezala Espainiako Armadarekin-bat lan egin beharrean", Antimilitarista Taldeak esaten duen bezala.

1997-KO MOZIOA.

1997an bost puntuko mozio bat sartu zuen Azpeitiko Udalerkiaren aldean: "Udalerkiaren Zigor Kode berriko inhabilitazioak praktikan ez jartzea; herri desmilitarizatuaren alde lan egitea; soldadutzaren ordezkotza zerbitzua egiteko objektoreak ez hartzea; soldadutzarako erreklutamentuetan parte ez hartzea; eta intsumisioei elkartasuna adieraztea (orduan Martutenen Xabier Etxeberria intsumisio azkoitiarra preso zegoen)". Mozioak ez zuen ez aurrera ez atzera egin. Baina beranduago Udalerkiaren intsumisio eta objektorei abokatu zerbitzua doan jartzea erabaki zuen.

Urteek aurrera egin ahala, intsumisio kasuak gehitzen joan dira Azpeitian, eta intsumisioaren aldeko aldarrikapenak ere bai. Mugimendu horretan ibilitako azpeitiar batek gogoratzen duenez, "atxilotuak izan ziren, epaituak ere bai; Xabier Etxeberria intsumisio azkoitiarra ere kartzelan zegoen. Azken batean, mugimendu bat zen, jende bat biltzen zen horretarako, baina batez ere Azpeitian *mobida* pertsonala zen, nire iritziz behintzat".

EKINTZA ASKO.

Egin ziren ekintzen artean era askotarikoa zeuden; udaletxean kaiteatzea, Loiolan hankak porlanez betetako ontzietan sartuta bidea moztea eta beste ekintza batzuk. "Udaletxean zintzilikatzearena gazte batzuen kontua izan zen; epaiketara ez azalzteagatik bilatzeko eta atxilotzeko agindupean geunden, ez guelako nahi ez Espainiako Justiziarekin edota Armadarekin parte hartu nahi. Udaletxera kateatu ginenean, Azpeitiko alkateak gu handik jaitsi eta atxilotzeko agindu zuen. Ertzaintzaren koartelera eraman gintuzten eta hurrengo egunean Donostiara epaitegira, baina ez genuen deklaratu".

Horra bada intsumisioaren Azpeitiko arrastoak.

Hamabostean behin asteburua jai izaten genuen. Gero, mandoa eta gurdiaekin Donostian esnea banatzen ibiltzen ginen. Izugarritzko abiaduran ibiltzen zen mando hura, kaleetan autoen artean, semaforoei ere atzematen zion gorria zegoenean geldituz. Militarren etxetara banatzen genuen esnea. Koartelaren goialdean bazen militarren baserri bat, bi soldadu zeuden han lanean eta arratsaldetan hara igotzen ginen lanera. Iluntzean ateratzeko aitzakia ere izaten zen batzuetan goiko lanarena. Nonbaiten afaltzeko asmotan baginen, aitzurra hartzen genuen eskuan eta zaintzaileari irteeran, goiko baserrira laguntzera gindoazela esaten genion. Eta halaxe ateratzen ginen. Gero ondoko Bar Americanon utzi aitzurra gordeta eta geu zerbitzua afaltzera. Bueltan, atzera aitzurra jaso eta koartelera sartu ginen".

Felix Luengo



"Hotz beldurgarriak pasatu genituen Burgosen"

"22 urterekin joan nintzen soldadutzara, orduan urte eta erdi izaten zen soldadutza. Burgosen egin nuen soldadutza, eta, egia esanda, hotz beldurgarriak pasatzen genituen han. Burgosen nire kintakoak bi baino ez ginen azpeitiarrak: Luis Amenabar eta biok. Gazteagoak geroago joan ziren, eta orduantxe animatu zen zertxobait soldadutza. Soldadutzatik lizentziatu ginela Burgoserako bidean ginela jakin genuen. Bulegoko lanak egiten nituen nik, solda-

duak nora joan behar zuten eta paperak egiten. Uniformea jantzita, *kaki-kaki*, jakina. Burgos herri garrantzitsua zen Espainiako Armadarentzat, eta, beraz, garai hartan izugarritzko kuartela zegoen han, dena soldaduz beteta. Hiru hilabete Burgoseko 5. etorbidean pasatu nituen, instrukzioak egiten. Bulegoak kuartelek kanpo zeuden, barrakoi batzuetan, eta goi kargurik ez zen agertzen handik. Han despistatuta ibiltzea hobe izaten da. Ba-rrakoietan bertan logelak antolatu genituen, koltxoak bertan bota, eta era horretan lo egitera kuartelera ez ginen joaten. Hilabete Burgosen eta hilabete etxean pasatzen nituen normalean. Trenean joaten ginen Zumarragara, eta Zumarragatik Burgosera. Ezin kexatuko naiz; han egon beharra edo jardun beharra zegoen. Horixe zen kontua". ●

Azpeitiko merkatu txikia

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Ebxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:
uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

- **Bustinzuriko Errebala.** 40 metro karratu. Telefonoa: 943 - 20 33 12. Leire edo 657 79 96 94. Mikel.
- **Pablo VI.** 15 zenbakia 5. pisua. 100 metro karratu. Telefonoa: 943 - 81 41 00.
- **Loiolabide.** Eguzkitsua, bi terraza, egongela tximiniarekin, sukaldea, hiru logela, bi bainugela eta garagea. Telefonoa: 616 98 44 38.
- **Garate Anaia.** 90 metro karratu. Telefonoa: 943 - 81 26 62 edo 676 29 37 00.

2. LOKALAK

2.3. ERRENTAN EMAN

- **Lokala.** Olatzko Amaren plazan. Telefonoa: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

- **Injinerua.** Injineru tekniko industrial elektronikoa. Azpeitia edo

Azkoitzen bizitza eskatzen da. Telefonoa: 943 - 29 25 42.

• **Baserriko lanak.** Gazte bat eskaintzen da baserri batean lana egiteko euskara ikastearen truke. Telefonoa: 653 01 00 85.

• **Eskiatzaileak.** Ikastolen Elkarteak eskiatzen dakiten monitorea euskladunak behar ditu, astean zehar laguntza emateko. Interesatuak deitu honako telefonora: 943 - 44 51 92.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

- **Autoa.** Ford Focus 2.0 16v. SS-BD matrikuladuna, 50.000 kilometro. Gehigarri denak (aire egokitu izan ezik). Kolorea: berde metalizatu. 1.800.000 pezeta. Telefonoa: 656751323. Iñaki.
- **Autoa.** Ford Sierra Cosworth. 204 zaldi. Gehigarriak. Egoera onean. Telefonoa: 656 77 08 97. Gorka.
- **Motoa.** Derbi GPR-80. Bieskape Tavi eta beste GPR-80 bat ia osoa piezatarako. Telefonoa: 656 77 08 97. Gorka.

• **Motoa.** Honda NSR-80. Gehigarri guztiak. NH-AD. 600 euro (100.000 pezeta). Telefonoa: 943 - 81 61 74 edo 647 21 21 55. Ibon.

• **Autoa.** Ford Maveryk 4x4. 2.7 TD. Telefonoa: 659 03 63 33. Jon.

• **Autoa.** Peugeot 306 XSI. SS-AT. Telefonoa: 687 21 71 16. Xabier.

• **Autoa.** Ford Orion 1.6. 100.000 pezeta. Telefonoa: 679 81 66 66 edo 943 - 73 18 48.

• **Autoa.** Mercedes familiarra. Grisa. 300 TD. Telefonoa: 943 - 81 35 00.

• **Autoa.** BMW M-3, Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Zure autoa finantzatu dizugu. Orbegozo Autoak. Telefonoak: 943 - 15 18 57 edo 629 48 09 83.

• **Autoa.** BMW 530-D. Avant. Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantzaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoak: 943 15 18 57 edo 629 48 09 83.

• **Autoa.** BMW 320-D. Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Auto-

• **Egurra.** Botatako egurra, haritza, gaztaina, pinua, ohol zaharra eta intxaurren errotak erosten ditugu. Deitu ondoko telefono zenbaki hauetara: 943 - 81 34 74 edo 943- 81 45 70.

• **Begiraleak.** Larunbatez Jolas programarako begiraleak behar dira. Eskatzen diren baldintzak: 18 urte eta azpeitiarra izatea. Lanerako gogoa eta esperientzia kontuan hartuko dira. Izena emateko Gazte Informazio Bulegotik pasatu urtarriaren 14rako. Telefonoa: 943 - 15 71 61.

aren finantzaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoak: 943 15 18 57 edo 629 48 09 83.

• **Autoa.** Audi A-3 TDI. 110 zaldi, pertsonalizatua. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantzaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoak: 943 15 18 57 edo 629 48 09 83.

• **Autoa.** Audi A-6 2.5 TDI. Avant. Tritonic. FullEquip. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantzaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoak: 943 15 18 57 edo 629 48 09 83.

• **Autoa.** Subaru Impreza GT Turbo. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantzaketa. Orbegozo Autoak. 15 18 57 edo 629 48 09 83.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

- **Idiskoak.** Bi idisko zezenetarako bederatzi hilabetekoak asturiana arrazakoak. Telefonoa: 81 64 34.
- **Ardiak.** Hogei ardi ume egiteko. Telefonoa: 689 92 93 54 edo 943 15 13 28.
- **Pianoa.** Modu onean. Telefonoa: 652 76 15 52. Iñaki.

 **ostadar optika**
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **AZKOITIA**


ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

 **LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

 **IZARRAITZ**
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Pisuen salmenta,
alokairu eta eskualdatzea,
lokal komertzialak eta baserriak,
pabilioak eta lurrak

Erdi - Kale, 2 behe
Tfnok: 943 816777 / 943 816812
Faxa: 943 816978
AZPEITIA
inmobiliaria@izarraitz.com

 **TABERNA IKOTX**

Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

 **IRENE ALTUENA**

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Exeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

 **PILDAIN**
inmobiliaria

Elizkale, 22 • TEL: 943-812167 • pildain@jet.es


argazkilaye: Josu Bereziartua



«Liburua osotasunean da argazki bat»

● **JOSU BEREZIARTUA.** "Beti izan naiz argazkilaria; mendian ibiltzen ikasi nuen bitartean ikasi nuen argazkiak ateratzen ere, Pello Arenasen eta Pako San Sebastian lagunaren eskutik". 1960an sortu zen Josu, Azpeitian.

● **IZARRAIZTIK EVERESTERA.** Josuk parte hartu duen espedizio eta abenturetako argazkiak jasotzen dira liburuan. Baita Txetxu Urbietak kazetariak idatzitako haren bizitzari buruzko kronika ere.





4

1. GAILURRERA.

Dhaulagiri (8.167 metro), 1999ko udaberria. "Tontorretik 50 metrora dagoen zulo batek galarazten digu ahalegina".

2. AMAIA.

Ama Dablam (6.812), 1996ko udaberria. "Mendi hau gu biontzat izugarri erakargarria zen".

3. BIZIMODUA.

Cachemira, 1989ko uda. Nun mendirako Gipuzkoako espedizioa.

4. BIDEAN.


Benantxio Iruretak Josuri ateratako argazkia 1991ko udazkenean Azpeitia-Everest espedizioan.

5. JENDEA.

"...Pintore batek, ahalegin guztiak eginda ere, ezingo lituzke usain berezi hura eta ume nepaldarren ohio alaiak jaso bere margolanen".

6. IZOTZETAN.

Elbruz (5.642), Kaukasoa, 2001eko negua.



5



6



7. SHERPAK.

Karakorum, 1994. (K-2 espedizioa). "Lurralde haietara joaten diren guztiak nabegikor eta gizatasun osoz portatzen dira".

8. BASAMORTUA.

Takla Makan, 2000ko udazkena. "Uigurren bizitzeko erak garbi erakusten zidan, berez, gizakiak zein gutxi behar duen gustura bizitzeko..."

9. BIZILEKUA.

Everesterako (8.848 metro) bidean. 1990eko udazkenean.



MOTORREN ZARATA PUTA HORI

16 urte dauzkat. Eta motor eder bat. Auzokoez ez didate onez onean begiratzten. Inbidiagatik dela suposatzen dut. Kexatu izan zait jendea. Zaharrak eta gazteak. Azkarregi noala, zarata handiegia ateratzen duda-la... Ez al gara gero tolerantzia gora tolerantzia behera ibiltzen? Eta ez al du inork neurea errespetatu behar? Besterik ez genuen behar. Esaten al diet nik ezer beraiei? Gaztea naiz eta niretzat ere errespetua eskatzen dut. Gutxienez motorrarekin harrapatu izan banitu, orduan izango zuten kexatzeko arrazoirik. Baina ezta hori ere. Nahi dutena egiten uzten diet nik! Noiz edo noiz zebra-bideren batean gelditu izan naiz, gainera, lasai pasa zitezten. Zarata? Horregatik ere kexatzen dira? Jendeak ez daki zer egin eta besteak izorratzea besterik ez zaio bururatzen. Zarata. Bo. Ez al du Martxialenek nahikoa ateratzen gauean? Eta zein kexatzen zaio? E?

Herrian inolako beharrik gabe –eta etengabe!– bueltaka ibiltzen garela ere leporatu izan didate, gora eta behera, denak aztoratzen. Aibadios. Eta? Herria ez al da, ba, guztiona? Errepideak ez al dira, ba, ibiltzeko? Hori, ba. Nik ere baditut eskubideak, aizue. Horixe bakarrik behar genuen.

Iskanbila handiegia ateratzen omen du motorrak. Legeak debekatu egiten duela esan didate. Nik, egia nahi baduzue, barre ederrak atera ditut horren kontura. Legeak... Hilabeteak daramatzagu legez kanpo, horren arabera, baina ez zait ezer pasatu. Ez niri ez ni bezala dabilzan lagunei. Lasai asko ibiltzen gara nonahi eta noiznahi, eta, nik dakidala behintzat, ez dute horregatik multarik jarri, ez abisurik eman, ez ezer. Nola ez dugu, ba, bere horretan jarraituko?

Eta nola ez zait, ba, motorra gustatuko? Jakingo bazenute neskaxa gazteen albotik igarotzean nola begiratzen didaten, zein gogor-begiradarekin aztertzen ditudan nik... Kristorena da. Sakatu eta sakatu azeleragailuari. Atera burrunba. Ez dago hori bezalakorik. Ez dago.

Egunean zehar ederra izaten da jendea sutan jar-tzea –gaixoak–. Baina are gehiago gauean. Goizeko ordu batean –bueno, bale; dezente beranduago normalean–, etxerakoan, a ze gozamina. Sakatu azeleragailuari eta, ios, neure burrunba bai-zik ez da entzuten herri osoan. Askotan, gainera, etxe inguruan geratzen naiz, azeleratzen. Besterik gabe. Guztiek jakin dezaten iritsi naizela. Sentsazio deskribaezina sorrarazten dit horrek. Eta gutxi


ERRESPETUA.

Norberaren
gaineko
errespetua
besteak
errespetatuz
lortzen da

balitz bezala, horrela amak ere badaki etxera noala. Zarata entzun, eta badaki semea onik itzuli dela. Ama maite dut. Beti adi, beti kezka: motorrean kontuz ibiltzeko, baina ondo pasatzeko. Errietarik ez. Hain ondo ulertzen nau!

Uste dut nire urtebetetzean motor berria eskatu behar dudala etxean. Lagun batek nirea baino handiagoa dauka, zaratatsuagoa. Eta ez, hori ez. Ez du ba uste izango bera baino gutxiago naizenik horregatik! Ezta pentsatu ere. Ez diot aukerarik emango. Motor handiagoa ekarriko dut. Isilgailua? Utzidazue barre egiten: porkulo hartzera isilgailua! Trukatu egingo dut. Hartu bezain laster. Orduan bai aterako duela buila ederra! Joder, irrikitan nago. Benetan.

Baina zuek egon lasai, ekartzen dudanean antzemango diozue eta. Sobera buelta egingo ditut guztien etxe paretik. Ikusiko duzue. Ez dut beste zereginik!



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILAK 3 (osteguna)

• ZAPO TXOKO.

Futbol partidua eta merienda. 17:00etan. Zapo Txoko gaztegunean.

URTARRILAK 4 (ostirala)

• ZAPO TXOKO.

Zinema, Chocolat filmea. 17:00etan eta opari trukaketa *Lagun ezkutua*. Zapo Txoko gaztegunean.

URTARRILAK 6 (igandea)

• FUTBOLA.

Preferentea: Lagun Onak-Zarautz. 17:00etan. Garmendipen.

URTARRILAK 7 (astelehena)

• ZAPO TXOKO.

Topagunea. Zapo Txoko gaztegunean.

URTARRILAK 8 (asteartea)

• ZAPO TXOKO.

Topagunea. Zapo Txoko gaztegunean.

URTARRILAK 9 (asteazkena)

• ZAPO TXOKO.

Sukaldaritza lantegia. 300 pezeta. 18:00etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 10 (osteguna)

• ZAPO TXOKO.

Eskulanak perlakin. Zapo Txoko Gaztegunean.

Danborradak Azpeitian 45 urte beteko ditu aurtengoan

• **EKITALDIA:** San Sebastian bezperako danborrada • **EGUNA:** Urtarrilak 19 (larunbata) • **ORDUA:** 22:00-00:30 • **TOKIA:** Herriko kaleak eta Plaza Nagusia • **ANTOLATZAILEA:** Azpeitiko Udaleko Festa Batzordea eta herriko elkarteak

Nerea Aranburu / Azpeitian lehen danbor hotsak, 1957ko urtarrilaren 19an ospatu zen danborradan entzun ziren. Festa hauen sortzailetaz hitzegiterako orduan, bi apaiz donostiarren izenak aipatu beharra dago, Baltasar Iglesias eta Zezilio Arabaolaza hain zuzen ere. Hauek, garai hartan herrian zegoen Oargi dantza taldeko hainbat gazteren laguntzaz, danborrada martxan jartzea lortu zuten. Hasierako bi urte haietan umeen danborrada egin zen bakarrik. 1959an ospatu zen arrakasta handiz helduen lehen danborrada.

Lehenbiziko danborrada haietan hiru talde besterik ez ziren ateratzen; Oargi, Peña Taurina El Andaluz eta Oñazbide taldeak.

1964. urtetik aurrera ordea, berriak sartzen joan dira. Azkenengoz, 1991. urtean sortutako Sanjuandegi eta Zo-koaren kasuak ditugu. Urteak pasa ahala, garbi ikus daiteke geroz eta jende eta talde gehiagok hartzen duela parte. Gaur egun, danborrada nortasun propioa izatera iritsi da. Helduen danborradan 17 talde eta 800 lagundik gora ateratzen dira. Umeenean aldiz, 8 talde eta 400 ume parte hartzen dute aurten ere, urtarrila helduek festa usaian murgilduko dira azpeitiarrak. Urtero bezala, urtarrilaren 19an helduen danborrada aterako da. San Sebastian egunean berriz, hilaren 20an umeak izango dira protagonista nagusienak, eta herritar guztiek izango dute ekitaldi horiez gozatzeko aukera.

URTARRILAK 11 (ostirala)

• ZAPO TXOKO.

Bideoa, Mr. Bean. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 15 (asteartea)

• ZAPO TXOKO.

Internet ikastaroa. 17:30ean. 300 pezeta. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 16 (asteazkena)

• ZAPO TXOKO.

Sukaldaritza lantegia. 300 pezeta. 18:00etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 17 (osteguna)

• ZAPO TXOKO.

Eskulanak: papiroflexia. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 18 (ostirala)

• DISKO FESTA.

Disko festa, Joseina Etxeberriaren telebista eta irratiko esatariaren eskutik. Frontoi Txikian. 10:00etan. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta.

• ZAPO TXOKO.

Bideoa: Scary Movie. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 19 (larunbata)

• DANBORRADA.

Sansebastianak: Herriko kaleetan helduen danborrada egingo da, Azpeitiko Udala Musika Bandaren laguntzarekin. 22:15ean hasi. 00:00etan Enparantza Nagusian, San Sebastian martxa joko dute danborradako talde guztiek.

URTARRILAK 20 (igandea)

• TXISTULARIAK ETA DANBORRADA.

Sansebastianak: herriko kaleetan zehar, Izarraitz Txistulari Taldearen eta Musika bandaren goiz eresia. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeak Musika Bandarekin batera kalejira. 09:30ean.

• PROZESIOA.

Sansebastianak: herriko agintariak korporazioan Meza Nagusira abiatuko dira Parrokiara. Herriko kaleetan prozesioa 10:30ean.

• SOKAMUTURRA.

Sansebastianak: plazan zezena. 12:00etan.

• DANBORRADA.

Sansebastianak: Aranetik haurren danborradako taldeak aterako dira. 12:30ean hasiko da.

Egin publizitatea


urtarrila

943 15 03 58

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67



AZPEITIKO JAIAK LIBURUTIK

● **SOKAMUTURRA.**

Sansebastianak: herriko kaleetan zezena. 16:30etik 20:00ak arte.

● **ARETO FUTBOLA.**

Bigarren A Maila: Jostaldi kirolak-Tecnun. 16:30ean. Kiroldegian.

● **DANBORRADA.**

Sansebastianak: herriko bandera jaistea. 24:00etan.

URTARRILAK 22 (Asteartea)

● **ZAPO TXOKO.**

Internet ikastaroa. Izene-matea: 300 pezeta. Aurrez izena eman behar da izena. 17:30-ean. Zapo Txokon.

URTARRILAK 23 (Asteazkena)

● **ZAPO TXOKO.**

Sukaldaritza lantegia. Izene-matea: 300 pezeta. Aurrez izena eman behar da izena. 18:00-etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 24 (Osteguna)

● **ZAPO TXOKO.**

Eskulanak: Collage. Aurrez izena eman behar da, Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 25 (ostirala)

● **ZAPO TXOKO.**

Bideoa: 28 Dias. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 29 (asteartea)

● **ZAPO TXOKO.**

Internet ikastaroa. Izene-matea 300 pezeta. Aurrez izena eman behar da. 17:30ean. Zapo Txoko Gaztegunean.

URTARRILAK 30 (asteazkena)

● **ZAPO TXOKO.**

Sukaldaritza lantegia. Izene-matea 300 pezeta. Aurrez izena eman behar da. 18:00-etan. Zapo Txokon.

URTARRILAK 31 (osteguna)

● **ZAPO TXOKO.**

Eskulanak: buztina. Gazte Txoko Gaztegunean.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarria herri-azterteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerria (Azpeitia)
- 943-15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com




azpeitia

oparidenda

U r t e b e r r i o n i

Erdi kalea, 1 Tel. 943 81 13 25 20730 AZPEITIA



NEREA URANGA

“Burun otarra tailer bat montatzeko idea bat badauket”

Matximentakue da Iñaki, eta familiko tradiziye segieuz hartu du otarragintzie lanbide. Matximentan eta Nuarben garai bateko jardunbide nagusiye izendakue da otarragintzie; 40 eta 50 otarragile zien garai batien, gaur egun lau-bost besteik ez die aritzen otarrak eiten.

● **Noiz hartu zenun lanbide otarragintzie?**

Aita-amak jarduten zien ta seme-alabo danoi, erakutsi ziguten. Ordun ez genun gustoa jarduten kastigo bezela hartzen baigenun. Geo pelotan ere ibili nitzan, tailerrien'e bai. Ta 27 urtekin, pelotie utzi ta ordun krisi haundiye zeonez, otarragintzan hasi nitzen. Modelo berriyek atea eta beste herriyetako dendata hasi nitzen saltzen, badie 18 urte. Geo seme bat'e banun eta jornal bidie etzalata, dendie iriki nun Azpeitin. Han andrie ai da lanien eta holaxe.

● **Otarragintza gogorra al da?**

Prozesue bea nahiko goorra da, horreatik gazte gutxik heltzeyo lanbide honi. Ez du baliyo orduk sartziek bakarrik, tarea bukau arte jardun ber izeteta.

● **Lehen otarrie laneako tresna zan, ta oin?**

Oin dekoraziyoako geyo erabiltzea, bi gauze eiten ditu askotan, zerbitzue eta

dekoraziye. Lehen baserri-otarrak geyo erabiltzen zien. Oin baserritar batek bakarren batzuk erabiltze itu, baino fruta kajak'ta, desmontatzen dienak eta nayo ditu.

● **Artisau azokata jutie baliogarriye al da artisautzat?**

Ertetzie ona da, ezautzea emate zea eta tratue zuzeno da. Udalak'e laguntzak ematen dituzte azokak antolatze-ko ta. Bere lana dauke ertetziek, sarri ertenez-

keo ito eite zea baño. Uztaile-abuztuen izeteta azoka geyen, eta geo oin, abendu bukaeran eta urtarrillien.

● **Lenoko eran eite al dezu lana?**

Bai, lenoko prozesue seitzet. Urtarrille-otsaillin mendiyen gaztañe jaso, geo uretan euki, labien pasau, tirak ein eta otarrie. Rematie andriek emateyo. Ezin da makina berrik sartu, bakarra dauket tirak eiteko. Baño, ariye moztuz geo ez du baliyo izeten-da.

● **Otarragintzie indertze-ko zer eingo zenuke?**

Badauket idea bat burun, eztakit ertengoun baño. Hor etxe bat dauket erosite ta han tallerra montatzeko ideie dauket. Erakusten juteko. Aurten Errezilko eskolakoe etorri die eta taller txiki bat ein genun prozesue ikusiez.

Nerea Uranga

TXIKITAKO AMETSA. Aitak eta beti galdetzen ziotenean, “gizona izatea” erantzuten omen zuen Iñakik; gero erremontista izatea zuen amets, eta izatera iritsi zen

ZATOK GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA

*Altzari ekologikoa:
ingurugiroa errespetatuz,
gure bezeroak maite ditugu*




GAZTAINONDO ETA GEREZIZKO ALTZARIAK




fabrikako prezioetan zure etxera
finantzaketa 36 hilabetetara





Santi Lazkano Kirola



Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



GABON HAUTAKO ERREGALOIK MUNDIALENAI



Urbitate 9 ♦ Tel. 043 151360

Xanituandei auzuen gatzanden!